



Dominique Belpomme **minbizian aditua**



«Bost-hamar urte
barru osasun publikoa
lehertuko da»

Kutsadura **akustikoa**

Hamarretik lauk
zarata-maila
onartezina
jasaten du
Bilbon

Joxpi **Irastortza**

euskara planen
diseinatzailea
«Bultza dezagun
euskarari buruzko
hausnarketa
langileen artean»

Marc-Édouard **Nabe**

Frantziako
argitaletxeen
industriari
desafioa jo dion
idazlea

Irlanda **kiebran**

Erreskatearen
ondorioak
kale gorritik

MIHILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa
arrakastatsuaren
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko urtarrilaren 9a, 2.259. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Erramun Gerrikagoitia:** «Egiten dugu sarri euskara' berez den baino gaitzago». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Dezibelioak** gaixotasun iturri. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Dominique Belpomme:** «Pestizida eta erraustegiak gizateriaren aurkako krimenak dira». SUSTRAI COLINA / 10

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Zientzia eta egia. BEÑAT SARASOLA / 16
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Pentsioen** negozioa. MIKEL ZURBANO / 18
- **Txandan** Hotzaren itzala. JUAN RAMON MAKUSO / 18
- **Fuck off!** GORKA URBIZU / 19
- **Hiruko txikian** El tío Bareño. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Bertso berriak** Begiak itxita. KARMELE MITXELENA / 20

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Marc-Édouard Naberen azken trikimailua. HEDOI ETXARTE / 21
- **Soinu artea.** Bellissimoa. ALEX MENDIZABAL / 25
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 29
- **Ihesi** Etiopia, tribuak galbidean. GONZALO IRIBARNEGARAY / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Irlandaren kiebra.** Hamaika etxe huts, hamaika etxegabe. AMAIA ALVAREZ BERAESTEGI / 39
- **Joxpi Irastorza:** «Lantokia euskalduntzeko ez da aski hiru urteko plana». PABLO SUBERBIOLA, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Argentinan pobreak pobreagoen kontra ostikoka. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Gabon** Eskea. IÑAKI MURUA / 50



“Egiten dugu sarri euskara’ berez den baino gaitzago”

Erramun Gerrikagoitia | Prepositiboa

Ez dut sekula hainbeste sufritu,
transkripzio batekin.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Erramun, holako euskara entzutea egiten zaigu gogor eta arrotz.

Izango da holako euskara irakurtzea ze ni ez naiz mintzatzen holatsu. Baina seguru naiz ze niri ere neure textu bat egingo litzakidala entzuteko raro.

Izanik zorionez forma errazagoak eta naturalagoak an euskara!

Niri, oster, egiten zidana arrotz eta gogor da entzutea edo tv-en edo radioan “intsulina”, “erradikal”... eta holatsukoak, beharren entzun “insulina”, “radikal”...

Zergatik behar dira erabili holakoak?

Zeren bait dira, erabilirik zentzuz eta tentuz, hobeak ezi egun ikusten ditugunak prensan, hainbat textu quasi inasekibleak, quasi opa-koak, inulergarriak.

Hitz gehiago amnistiatu kulturalki, beraz. Amnistia osoa euskareari.

Deus espezifikatu gabe, bai. Duda barik. Izan behar dugu edo dukegu autonomo an gure hizkuntza. Ez dugu izan behar robot obediente automatizatu telezuzenduak guk personok.

Euskal verbua da, duda gabe, hagitz komplikatua.

Nitaz aparte beste askok ere ba dio ze euskal verbuak behar du inausketa sendo bat izan ez dadin totem beldurgarri paralizante bat.

**Euskarak ba dauka fama dela hizkuntza ikas-
teko gaitza, esaten izan zen ezen deabruak ere ezin ikasi izan zuela.**

Ikusirik zenbat ikasle hasi diren zintzoki ikasten euskara amaitu barik nork uka liro fama horrek ba duela parte bat tik fama difizil hori? Da evidentea. Gainera egiten dugu sarri euskara’ berez den baino gaitzago.

Errua eta ondorioz akaso kulpabilitatea norena ote da?

Batetik euskarak berak baduke hortan bere parte. Akademiak ere ez du sobera permisi-bilitaterik eta ez du ematen gainera rasonatze publikorik buruz bere megaloaraudi finba-koa.

Gure Akademiaren praxis orthographiko eta lexikala da logikoa edo illogikoa?

Nire eretxiz da total illogikoa orthograp-hian, hitz internationaletan. Ez duke Aka-demiak ikasi oraino zer den Kultura Okzi-dentala eta gu garela horren parte aintzinatik.

Zure idaztanka gehiago serioa da ezi Euskal-tzaindiarena?

Buruz orthographia bai, duda barik, hitz internationaletan. Beste nire arlotan, nola ahalegin syntaktikoa edo erabilera preposi-tivoa, hartzen dut nire bide hau aprobako-tzat. ■

Zarata


Dezibelioak gaixotasun iturri

Jendarte modernoaren gaitzetatik, gehiegizko zarata da gehien gogaitzen gaituenetakoa, inkestei jaramon egitera. Espainiako Estatuan bizi direnen kasuan ondo justifikatuta dago jarrera hori, munduko bigarren herrialde burrunbatsuena da eta. Ez gara ahuntzaren gauerdiko eztulaz ari, askoz ozenagoa den zerbaitez baizik: osasun arazo askoren iturria da zarata.

UNAI BREA

IÑIGO AZKONA





BASURTUKO AUZOKOEN ELKARTEAK UTZIA

Sabino Arana kalea, Bilboko sarbide nagusia. Ehunka lagun bizi dira autobidetik datorren biaduktoaren ondo-ondoan, eta udal ordenantzak dioena baino askoz zarata handiagoa jasaten dute ia etengabe. Bizkaiko Foru Aldundiaren aurkako demanda ipini zuten 2008an.

“HAMALAU URTE daramagu hemen bizitzen eta zarata hau jasaten. Ez da behin ere gelditzen, gau eta egunez dago trafikoaren hotsa; gauero bizpahiru aldiz iratzartzen nau. Azkenerako, norberaren osasunean ere igartzen da. Urduri zaude etxetik irten orduko, beti estresak jota. Ohitu? Ez dago honetara ohituko denik”.

Emilio Asla Bilboko Sabino Arana kalean bizi da, goiko argazkian ikus dezakezuen berean, baina argazkia ez dago haren etxetik eginda. Egiazki, Aslari hor ikus daitekeena baino askoz hurbilago igarotzen zaizkio autoak; puntako orduetan 80.000 ibilgailu orduko, Basurtuko Auzokoen Elkarteak emandako datuaren arabera. Leiho bikoitzak zertxobait babesten du, baina ordainetan, leihoa gutxitan zabaltzera kondenatzen zaitu.

Hiri modernoaren gaitz handienetakoa

Hiriko sarbide nagusiaren albo-alboan bizitzearen ondorioa da Emilio Aslaren sufrikarioa, munduan milioika lagunek jasaten dutenaren antzekoa. Osasunaren Mundu Erakundeak dio hirietan bizi diren hamar lagunetik zortzik gomendagarria litzatekeena baino zarata ozenagoa pairatzen dutela. Espainiako Estatuan ingurumenari buruz egiten diren inkestetan, hiritarrek agertzen duten kexa nagusia zarata da, eta ez da harritzekoa, munduko bigarren herrialderik zaratatsuena baita, Japonia eta gero.

Osasunarentzako kalteak era askotakoak dira. Dezibelio kopuru batetik gora entzume-na galdu daiteke (ikus 8. orrialdeko koadroa), baina horretara iritsi gabe ere arazo psikologikoak eta fisikoak sortzen dira. Horietaz mintzatu zaigu Cesar San Juan, EHUKo Ingurumen Psikologia irakaslea: “Lorik ezin egitea da zarataren ondorioetako bat, eta horrek eragin psikologikoa du: kontzentratzeko zailtasuna, aldarrean aldaketak... Epe luzean, behar bezalako atseden faltak sortu ohi dituen kalte fisikoak ager daitezke”.

Zarataren intentsitateaz gain, norberaren sentiberatasuna hartu behar da kontuan: zala-parta berak ez digu denoi modu berean eragiten. Orobat, 65 dezibelio jotzen dira jasan daitekeenaren mugatzat, baina testuinguruaren arabera alda daiteke hori. 45 dezibelioko burrunba aski izan daiteke bi pertsonen arteko elkarrizketa eragozteko, edo loa galarazteko. Bide batez, komeni da azpimarratzea dezibelioak ez direla progresio aritmetiko arruntean neurtzen, unitate logaritmikoa direlako. Hiru dezibelioko igotzerak ez du esan nahi zarata apur bat gehiago dagoela, zarataren intentsitatea bikoiztu egin dela baizik.

65 dezibelio egunez, 55 gauez

Orain dela aste gutxi, Bizkaiko hiriburuak jasaten duen kutsadurari buruzko txostena



IÑIGO AZKONA



LILHOLLYW



CPCC.CL



DANI BLANCO

zabaldu zuen Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak; tartean, kutsadura akustikoari dagozkion datuak, datu kezagarriak inondik inora: bilbotarren %39k zarata maila onartezina jasaten du; gauez, %46k. Federazioko presidente Javier Muñozek esplikatu digunez, udal ordenantzak ezartzen dituen balioetan oinarritu dira “onartezina”-ren muga zehazteko. Alegia, egunez 65 dezibelio gehienez, eta gauez 55, etxebizitzak dauden inguruetan beti ere. Balioak zertxobait aldatzen dira, gora edo behera kasuaren arabera, osasun zentroak edota ikastetxeak dauden gunetan, nagusiki merkataritza dagoenetan eta industrialdeetan. Balioak oso antzekoak dira, bidenabar, Euskal Herriko udal ordenantza guztietan eta Espainiako Zarataren Legean. Zazpi urte besterik ez daukan legea, hori ere bidenabar. Espainiako Estatua zarataren sailkapenean hain gora egotearen arrazoi bat luzaz iraun duen hutsune juridikoa dateke.

Bilbora itzulita, Auzo Elkarteen Federazioren txostenak dio egunez 85 dezibeliotik gorako balioak izaten direla A-8 autobidetik gertu dauden hiriko hainbat gunetan, arestian aipatu dugun Sabino Arana kalea barne —eta kale horretan batez ere—. Zarataren arrazoi nagusia, Bilbon mundu osoan bezala, trafikoak baita. Eta trafikoaren antolamendua errotik aldatu ezean

Trafikoaz gain, eta haren neurri berean ez bada ere, gehiegizko zaratak baditu beste iturri batzuk. Nabarmenenak aisialdia —batez ere gauez—, industria eta eraikuntza edo kale-konponketa lanak dira.

nekez beteko dituzte Bilbok eta beste hiri askok beren ordenantzak; Interneten nongura aurkitu daitezkeen dezibelio-tauletan, ibilgailu asko dabilen kaleari beti egozten zaizkio 80 edo 90.

Bizkaiko Aldundia, epaitegira zarata ez eragozteagatik

Hori ikusita, edo akaso zuzenagoa litzateke “entzunda”, ulertzekoak dira Emilio Aslaren eta beraren ehunka auzokideren buruhausteak. Egia esateko, Aslak etxea erosi zuenean Sabino Arana kaleko biaduktoa eginda zegoen, ezin esan zarataren arazoa aurrez ezagutzen ez zuenik. “Baina ziria sartu ziguten”, kexu da, “luze gabe errepide berria egin eta hau bota behar zutela esan ziguten”. Bizkaiko Foru Aldundiak, biaduktoa kudeatzeaz arduratzen den erakundeak, behin baino gehiagotan egin izan die promesa hori, ia hogeitaz, Sabino Aranako biztanle kaltetuei, eta behin baino gehiagotan ez du hitza bete. Orain, biaduktotzarra ordezkatzuko duen San Mameserako sarbide berriaren lanak hasita dauden honetan, auzokoen haserreak ez du atzera bueltarik: 2008an, ia 200 etxetako ugazabek demanda jarri zuten Aldundiaren aurka, urtetan jasandako kalte moralengatik ordain eske.

Auzi honetan Sabino Aranako kaltetuak ordezkatzan dituen abokatua Alfonso Ter-



INIGO AZKONA

Hegazkin bat Loiuko aireportutik gertu. Loiur, Derio eta Sondikako milaka biztanlek legeak adierazten duena baino askoz dezibelio gehiago jasan behar dute egunean dozenaka aldiz. Sondikako aireportuan urteko 9.000 inguru operazio egiten ziren 70eko hamarkadaren amaieran; gaur egun, Loiukoak 65.000 baino gehiago hartzen ditu.

ceño bilbotarra da. Zaratarekin zerikusia daukaten auzietan espezializatuta dago, eta Espainiako Juristas Contra el Ruido (Zarataren Aurkako Legelariak) taldeko kidea da. “Kalte moralak dira zarataren ondorioz pertsona batek dituen pairamen psikikoak”, azaldu digu, “ez da nahastu behar gaitz mentala edo neurosia edukitzearekin”. Oso zaila da,

Terceñoren esanetan, egonezinaren jatorria zarata dela frogatzea, baina praktikan ez da beharrezkoa: legearen arabera, araudiak ezarritako dezibelio kopurua gainditu dela demostratzea aski da kalte moralak egon dela ezartzeko. Sabino Aranaren kasuan, Nafarroako Unibertsitate Publikoa arduratu zen neurketak egiteaz. Emilio Aslak ondo gogoan du, oraindik, astebetez leiho ondoan ipini zioten neurgailua. Haren bitartez eskuratutako frogari esker, 65.000 euro kobratu ditzakete, epaileak azkenik arrazoiak ematen badie. Horixe da salatzaileen %90entzat —trafikoa-ren burrundara zazpi urte baino gehiago jasan dutenentzat, hain zuzen— Terceñok eskatu duen kalte-ordaina.

Baina oso arazo zabaldua izan arren, gutxi dira Sabino Arana kalekoek jarritakoa bezalako demandak. “Zentzu horretan, nahikoa aitzindaria izan da hau”, dio Terceñok, “zaratari buruzko inkestetan jendea trafikoaz kezkatzen da gehien, baina oso gutxitan jotzen dute epaitegietara horregatik. Askoz arruntagoa da ostalaritza-negozioren aurkako salaketak jartzea”.

Jarrera horren zergatia, beharbada, zarataren iturriez ditugun pertzepzio desberdinak dira. Cesar San Juanek azaldu digunez, faktore ez-akustikoez ere baldintzatzen dituzte zaratak eragindako eragozpenak. “Entzuten ari garena saihestezina izateak ala ez izateak ere eragiten digu. Esaterako, kaleko trafikoaren zarata 75 dezibeliokoa bada, eta aldi berean aldamenekoaren txakurra zaunkaka ari bada, 75 dezibelio eraginez halaber, askoz eragozpen handiago egingo digu txakurrak; ezin dugu trafiko

Gure entzumen-aparatuak eraso gehiegi jasaten du

Behar besteko intentsitatea duenean, zaratak kalte larria egin diezaioke entzumen-aparatuari. Inaki Aierbe mediku espezialistak azaldu digunez, “norberaren sentiberatasuna faktore garrantzitsua da, denok ez dugu zarata era berean jasaten; baina orokorrean esan daiteke edozein soinu, 90 dezibeliotik gora, kaltegarria dela belarriarentzat”. Hain zuzen, barne-belarrian dagoen barakuiluaren zentzumen-zelulak degeneratzen dira, eta horiekin batera entzumen-nerbioa.

Horren ondorioa traumatismo akustikoa izaten da. Alde batetik, gorreria; bestetik, akufenoak, belarriak berak sortzen dituen soinu txistukariak. “Traumatismoa larria edo kronikoa izan daiteke, alegia, bat-batean eragindakoa —leherketa baten ondorioz, esaterako—, edo denboraz garatu dena. Traumatismo larri batzuk senda daitezke berehalako arreta medikua jasoz gero, baina gehienetan, mota batekoak zein bestekoak atzerazekin izaten dira”. Behin horretara iritsita, audifonoa da konponbide bakarra.

Aierberen esanetan, 90 dezibelioen muga oso sarritan gainditzen da gure inguruan. Haren lanbidean maiz ikuste dituzte, barbarako, rock kontzertu baten ostean traumatismo larri batekin ospitaleratutako gazteak. “Eta egunero dauzkagu kontsultategian diskoteka eta halakoetan lan egiteagatik gor geratzen ari direnak”.



BLOGS.SFWeekly.COM



BODAS.NET

Zaratari buruzko inkestetan trafikoak sortutakoaz kexatzen gara gehien, baina gutxitan jotzen dugu epaitegietara horregatik. Askoz salaketa gehiago ipintzen dira ostalaritzak sortutako eragozpenengatik.

gelditu, baina txakurra isilaraztea posible dela iruditzen zaigu”.

Gero eta kontzientzia handiagoa

Espainiako Zarataren Legeak duen akatsik handiena beranduegi iritsi izana da. Gainerakoan, lege ona da, Alfonso Terceñoren ustez. Horregatik, eta arazoarekiko gero eta sentiberatasun handiagoa dugulako ere bai, gora doaz zarataren kontrako aldarrikapenak, nola salaketa judizialak. Baina horrek ez du berez gure ingurua isilago bihurtuko. Cesar San Juanek azpimarratu nahi du orain arte jarrera defentsiboa besterik ez dugula agertu zarataren aurrean: “Egindako hutsak adabakiz

konpontzen saiatu besterik ez dugu egin orain arte”. Esaterako, Sabino Arana kalean beranduegi —eta gutxiegi gastatuz— Aldundiak ipini zituen hesiak, Emilio Aslaren etxean egiaztatu ahal izan genuenez ezer gutxirako balio dutenak. “XXI. mende-ko hirigintzaren erronka da jarrera defentsibotik prebentziora jauzi egitea”, dio EHUKo irakasleak, zarata handia sortzen duten aktibitateentzat gune mugatuak sortuz”. Ez dezagun ahaztu, dena den, zarataren kontu hau nahiko berria dela guretzat. San Juanen esanetan,

50 urte daramate gure hiriek trafikoaren menpe. Eboluzioaren ikuspuntutik, bart arratskoa da sortu dugun jendarte ozen hau. ■

Bilbotarren %39k zarata maila onartezina jasaten du egunez; gaur, %46k, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak zabalduetako txostenaren arabera



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA
BIZIA

Dominique Belpomme

«Pestizida eta erraustegiak gizateriaren aurkako krimenak dira»

Kontsultara sartu eta medikua hizketan hasi zitzaidan.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

...

Bigarren Mundu Gerratik hona osasun publiko izurriteak jota dago. Gizarte segurantzaren azken datuak hartuz gero, zazpi frantsetik batek infekzio kroniko larria dauka, baina gizarte segurantzak beregain hartzen ez dituen infekzio kronikoen zifrak eskuetan, hiru edo bi frantsetik batera heltzen gara. Milioi batek minbizia dauka, hiru milioitik gora diabetiko dago, hiru frantsetik batek presio arterial anormala dauka, gizartearen %20 alergikoa da... XX. mende hastapenera arte Alzheimerrik ez zen existitzen, milioi bat gaixo dauzkagu egun. Lasai egoteko esaten digute gainera, zahartzaroan jotzen gaituen gaitza dela, baina gezurra da, gazteei ere erasaten die. Ez da kasualitatea ehun haurretatik bat autista sortzea, ehunetik hiruk gaixotasun arraro bat edukitzea jaiotzetik, edo zazpi umetatik bat asmatikoa izatea European. Horiek oro apenas existitu diren oraintsu arte, baina egun, izurritearen gorrienean gaude, lurrikararen epizentroan, eta ezer egin ezean, lurrikara izurrite baten atarian egon gaitezke.


Zeri zor zaio datuen emendatze kronikoa?

Batetik, azalpen klasikoak daude. Gaur egun, gaixotasun horiek askoz hobeki detektatzen ditugula, barazkiak eta frutak jan beharrean txitxi gehiegi jaten dugula, tabakoak itota eta alkoholak hordituta bizi garela, ez dugula aski kirol egiten, ginkarga sedentarioa daramagula soinean... Azalpen horiek sinesgarriak ote dira, alta? Ez, ez, eta ez. Aipatutako faktoreek gaixotasunen garapena erraztu egiten dute, baina ez dira euren kausa zuzenak. Nik

minbiziaren eredia ikertu dut, eta lau minbizitik bat tabakoari estuki lotuta badago ere, ez da ahaztu behar tabakoak ez, zigarroetan daudden produktu kimikoek sortzen dutela minbizia. Eta zer gertatzen da beste minbizi kasuen hiru laurdenekin? Alkohola ez da kantzerigenoa berez, koipe eta barazkien arteko desoreka alimentarioa ez da kantzerigenoa berez, kirolik ez egitea ez da kantzerigenoa berez... Beraz, non daude faktore kantzerigeno horiek? Gure ingurumen kutsatuan. Minbiziarekin ez ezik, gaixotasun berri gehienekin gertatzen da hori. Ikerketa epidemiologikoei izugarri kostatzen ari zaie hori frogatzea, baina batzuentzako ikerketa epidemiologian bukatzen dela dirudien arren, ezin dugu gizarte modernoetako osasun publikoaren gai zentrala baztertu. Ingurumenaren kutsadura fisiko eta kimikoak zerikusi zuzena dauka gaixotasunen areagotzean, eta horrek gizarte segurantzaren eztandara eramango gaitu. Nola jasan

Nortasun agiria

1943ko martxoaren 14an sortu zen Rouen-en (Frantzia). Medikua, doktore, ikertzaile, eta punta-puntako kantzerologo hau mundu mailako zientifikoaren elkarte anitzetako kide da eta minbiziaren aurkako ikerketa terapeutikoaz arduratzen den ARTAC elkarte frantsesaren sortzaile eta burua da. Hiru libururen idazle, minbizia eta ingurumenaren arteko lotura frogatzeko daraman borrokarengatik da ezaguna.





dezake gizarte segurantzak bi biztanletik bat gaixo egotea? Erretretea baino arazo askoz larriagoaren aurrean gaude, eta gehiengo handia oraindik ez da ohartu ere egin.

Baina osasun sistemaren hondoratzeak nahi eta nahi ezko iraultza ekarriko du. Horrek eraman gaitzake gure bizimodua errotik aldatu eta ingurumena zinez zaintzera?

Bi faktorek eragingo dute, gizarte aldaketaz harago, zibilizazio aldaketa bat sortu dezakeen iraultza kolosal bat. Batetik, mendea amaitu aurretik petrolio sikatearekin egingo dugu topo, eta autoari ezantza botatzea gaur baino hamar aldiz garestiagoa izango denean, edo hegazkin txartelak gaur baino hamar aldiz gehiago kostako direnean, bistan da ezin izango garela orain bezala bizi, eta beste gizarte eredu bat jaioko dela. Onartu beharra daukagu mende amaieran gaur bidaiatzen duguna baino askoz gutxiago bidaiatzen ahalko dugula eta gertutasunezko gizarte bat izango garela. Beste faktorea, osasun publikoaren arazoa da. Uste dut bost-hamar urte barru gure gizarte segurantzak lehertuko direla, ezin izango dutela gaur euren gain hartzen duten laurdenik ere ordaindu, eta horrek bi martxatako medikuntza sortzeko arriskua dakar. Sistema horretan, aberatsek aseguru pribatuak ukango dituzte eta ez dute sendatzeko arazo zipitzik izango, baina txakur txikirik ez duen jendea gizarteak abandonaturik hilko da. Nik hori ezin dut onartu, eta hori onartzen ez dudalako borrokatzen dut itsu-itsu, medikuntzak gaixotasunen ondorioak ikertu ordez kausak ikertu ditzan. Horregatik diot sustraian murriztu behar dela kutsadura. Horregatik eskandalizatzen naiz ama-eskola baten ondoan uhin elektromagnetikoak barreiatzen dituen antena bat jartzen dute-nean. Horregatik diot pestizidak eta erraustegiak gizateriaren aurkako krimenak direla. Noiz ikasiko dugu dosien intentsitateak ez, dosiaren tai gabeko errepikapenak egiten duela pozoia?

Gu ez ote garen pozoirik zitalena...

Zergatik uste duzu minbizia eta gaixotasun berrien areagotzeaz gain, espeziearen ugalketarako arazoak geroz eta nabarmenagoak direla? European, hiru bikotetik batean, antzutasuna pixkanaka instalatzen ari dela frogatuta dago, eta badakigu, kasu horien erdietan, errudunak pestizidak direla. Pestizidek beste arazo larri bat dakarte, ordea. Gaixotasunak sortzeaz gain, humusaren ugalketa eragotzi eta urte luzetarako lurrak antzutzen dituzte. Berbarako, hori da Martinikan gertatzen ari dena. Bertako lurren %10a antzua izango da hurrengo mila urteetan, eta gainontzeko

lurren %80ak sei edo zazpi mende beharko ditu bere onera itzultzeko. Horri pestizidek erreka eta ibaiak kutsatzen dituztela gehitzen badiozu ba... Horregatik diot gizateriaren aurkako krimen puru-purua direla. Erraustegiak berdin. Baina zentzurik ez duen gizarte batean bizi gara, eta ez zaigu iraultza beste irtenbiderik geratzen. Iraultza ideologiko eta kulturala behar dugu, baina baita iraultza ekonomiko, sozial, eta politikoa ere. Pozoia izate-tik antidoto izatera pasa behar gara.

Martinika aipatu duzunez, mintza gaitzen lobbyen indarrak. Antilletako lurretan erabiltzen ziren pestiziden ondorio beltzak azpimarratzen zituen txostena idatzi zenuenean denek egin zizuten lepora salto. Denborak arrazoi eman dizunean, ez da inon ezer ageri.

2004an Pariseko Deia egin genuen, non gaixotasun gehienak kutsadura kimikoari lotuak zirela, Frantzia arriskuan zegoela, eta mundua horrela kutsatzen segiz gero gizakia espezie legez ez zegoela salbu aldarrikatzen genuen. Europa osoko 250.000 biztanlek izenpetu zuten manifestua, 1.500 GKE-k, medikuntzako hiru Nobel saridun frantsesek, mundu mailako zientifiko ugari... Ez nengoen bakarrik, baina orduan, industria kimikoaren lobbyek, eta pestizidenak bereziki, itsuitsu jo zuten nire aurka. Zoro bakarti eta isolatua nintzela frogatzen saiatu ziren, baina ez zeukaten zereginik. Antilletako txostenaren ostean, alabaina, lobbyek zuhurrago jokatzen zuten, eta politikariak bidali zituzten zaunka egitera, nik txostena idatzi nuenean ikusi ez nuen estatu arazo baten aurrean geundela argudiatuz. 2007an Antilletara nire mediku lana egitera joan nintzen, bertako elkarte eta legebiltzarkide zenbaitek deiturik, eta idatzi nuen txostena baizik ezin nezakeen idatzi, bakoitzak gure egia daukagun arren, errealitatea bat eta bakarra delako. Denborarekin manipulazio anitz eman dira, nire posizioetan atzera egin eta txostena deuseztatu nuela ere

“Gaixotasunaren ondorioak ikertzen dirutzak gastatzen ari gara kausetan sakondu eta inbertitu beharrean”

zabaldutako zen, den-dena zakurraren putza. Nik chlordecone pestizida erabilienean eta toxikoen izanagatik, egun pairatzen ditugun ondorioak beste pestizida batzuenak zirela baizik ez nuen esan, eta chlordecone delakoaren ondorenak hemendik urte batzuetara jasango ditugula. Horrek zer esan nahi duen? Seinalatu nuen arazoaren hastapenetan baizik ez gaudela, kutsadura horrek mendeak eta mendeak iraungo dituela, eta gaixotasunak areagotzen joango direla. Bitxia dena da, urte batzuk berantago, ikerketa berrienek arrazoi osoa eman didatela, osasun arazo larri baten aurrean gaudela frogatu dela, eta inoiz ezer esan ez banu bezala jokatzen duela jendeak. Horregatik, kazetariei esaten diedan bakarra da, beraien lana independentzia osoz egiteko, ez erortzeko lobbyen eta politikarien manipulazioetan, kontrastatzeko argitaratzen duten guztia, eta ohartzeko behingoz, kontu larriak direla hauek, gure haurren osasuna eta espeziearen biziraupena daudela jokoan.

Zeintzuk dira gure haurrei mundu hobea uzteko hartu beharreko urgentziazko neurriak?

Arazoaren garapen eta konponbideari erreparatzeko bi modu daude. Lehen, etapaz etapako erreformena da, pauso txikika aurrera egitea, ingurumen politikarekin lotura zuzena izango duen benetako osasun politika bat plantan ezartzera arte. Goitik beherako politika eta pentsamolde aldaketa bat eskatzen du horrek, dena dagoelako lotuta, eta esaterako pestizidak erabiltzeari uko egiteak laborantza politika komuna (PAC-a) erreformatzea eskatzen duelako. Errauste-



AZKEN HITZA

Telethon eta telemaratoiak

“Ekimenen etikaz nire dudak dauzkadan arren, ez dut elkarte horien eskuzabaltasuna kritikatu. Ikerketak dirua behar du, eta berez estatuak finantzatu behar lukeen arren, telemaratoi eta gisakoek estatuaren gabezia baizik ez dute azaleratzen. Zergatik daude hainbeste GKE? Estatuak ez dutelako egin behar litzatekeen oro egiten. Estatuak jendearen benetako arazoei erantzun bali, ez legoke GKE-en beharrik. Hori esanik, non dago benetako arazoa? Zer da halako ekimenetan batutako diruarekin egiten dena? Nik oso garbi diot ikertzaile frantsesen errendimendua ez dagoela frantsesen eskuzabaltasunaren mailan. Nola izan daiteke Frantzia bezalako herri bat ikerketa mediku-zientifikoetan hamalagarrena?”.



gien kasuan, moratoriak eskatu, eta sozio-ekonomikoki guztiz errentagarriak diren eta dagoeneko existitzen diren alternatibak lantzea suposatuko luke. Zer da urratsez urratsezko erreformen arazoa? Daukaguna baino denbora gehiago behar genukeela sistema horrela eraldatzeko. Mintza gaitezen Frantziak. Zer egin du Frantziak ingurumena eta osasuna lotzen dituen politika eraginkor bat martxan jartzeko? “*Le grenelle de l’environnement*” programa. Eta zer da “*le grenelle de l’environnement*”? Hitzaren diktadura hutsa, erabateko porrota. Lehen baino pestizida gehiago erabiltzen da, oraindik erraustegiak eraikitzen dira, minbiziaren hilkortasuna jaitsi arren kasuen areagotzea etengabe igo da, autismoa eta alzheimerren kasuek konpondu gabe jarraitzen dute, eta egoerari nola edo hala aurre egiteko gaixotasunen ondorioak ikertzen dirutzak gastatzen ari gara kausetan sakondu eta inbertitu beharrean. Zergatik ez du funtzionatzen egitasmo politiko horrek? Egungo sistema ekonomikoa benetako politika ekologiko bati aliatzea katua eta sagua lagun egitea bezalakoa dela, eta programak programa, gaur egun ekologiak ekonomiaren apurkak baizik jaten ez dituelako.

Zein da zuk hobesten duzun bigarren bidea, beraz?

Humanitatea salbatzeko aukera bakarra sistema hankaz gora jartzea da. Egungo panoraman, interes ekonomikoak daude ororen gainetik, interes ekologikoei apurkak janziz bizirauten dute, eta osasuna “azkena, ipurdi gizona!”. Nik defendatzen dudana sistema bestelakoa da. Interes ekonomikoak giza interesen zerbitzura jarri behar dira, interes ekologikoen menara, osasunaren esanera, munduak, egitekotan, giza interesen, osasu-

naren eta ekologiaren izenean egingen baitu aitzina. Horretan muturreko eta erradikalak izan behar dugu, benetako iraultza aldarrikatzea dagokigu, eta apurka-apurka, herri eskandinaviarrek erakusten diguten adibidea geureganatu behar genuke. Arazoa da, bote-re politikoek apustu hori egin ezean, iraultza hori kalean baizik ezin izango dela egin, eta gizakiak amorrutik kalea zapaltzen duen momentutik beti dago indarkeriarako zirikitu bat. Alde batetik horra heltzeak beldurtzen nau, baina bestalde, laborariak laborantza intentsiboarekin euren lurak antzutu dituztela jabetu, eta euren seme-alabei deus produzitu ezin duten lurak utziko dizkietela ohartuko direlarik zer gertatuko da? Lehen belaunaldiak agian patrikak beteko dituzte hormigoizko eraikinak egiteko lurak salduz, baina nork emango digu jaten? Jendea jabetzen denean gizarte segurantzak ezin dituela gaixotasunen gastuak beregain hartu eta hiltzera kondenatuta dagoela zer gertatuko da? Denak jaitsiko dira karriketara, baina arazoaren larritasuna hainbestekoa izanik, jendeak ez dio arazoaren erroari soilik begiratu, arduradun eta errudunei baizik. Bistan da zenbaitek dena sistema ekonomikoaren bizkar lagako dutela, baina inoiz baino nabarmenagoak izango dira sistema horren aktore nagusien ardurak eta erruak. Bukatu zaigu ogi zuria, eta ezer egin ezean, ogi beltza jatera kondenatuta gaude. Erreka bere bidera noiz itzuliko zain bagaude, inork kontrolatu ezingo duen iraultzaren atarian egon gaitezke. ■

CAMINOS


3D estrategia jolasa



Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€

Ludi**toys**

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

Zientzia eta egia

Jakina, gauzak ez dira hain sinpleak. Anak ondo dioen moduan, poetaren eta idazlearen arteko aldea ez da hain erraza zehazten. Antonio Gamoneda poetak esan izan du beretzat poesia ez dela literatura, aparteko gauza dela. Badira, ordea, poesia gainontzeko literatura genero eta arteekin lotzeko joera dutenak. Neroni hor nengoke Gamonedaren burbuila poetikoan bainoago. Modu aski sinplistan bereizi nuen aurreko *Ttakunean* egiaren eta edertasunaren artekoa. Platonen hartakotik ez da alferrik urte mordoa igaro. Literatura/fikzioa eta zientzia/egia bikote eskematikoak kritika ugari izan ditu urtetan alde guztietatik. Literatura eta poesiaren inguruan mintzatu gara zer edo zer. Zientziaz egin nahiko nuke oraingoan berba. Edo, hobeki esanda, zientzia omen dena jendarteratzeko moduez.

Eduard Punset ia hamabost urte daramatza TVE-n *Redes* zientzia-jendarteratzeko telebista programa egiten. Alderdi Popularraren Espainiako hauteskunde orokorretako lehenengo garaipenarekin batera hasi zen eta bizirik iraun die gorabehera politiko eta telebistako zuzendaritza aldaketei. Ez da gutxi. Gogoan dut Aznarren eldarnio zoro betean TVE ikustea heste-proba dorpea zela. Carlos Davila eta enparauak ziren uhinen jabe. Orduan esaten zen *Redes* programa zela Espainiako telebista publikoko programa pairagarri bakarra. Agian hala zen; itsuen herrian okerra alkate. Garai batean tarteka ikusten nuen baina inoiz ez grina handiegiz.

Gabon gaua eta Urte berri egunaren ondorengo egun gogaikarri horietako batean telebista ipini eta hara non zegoen aipatu programa aspaldiko partez. Egiteko askoz hoberik ez nuenez —egiatan, eduki banuen, baina ez nuen neke handiegirik behar

MARC CAMPA



Beñat Sarasola



Urkiza



Padroin

izan neure burua engainatzeko— eta adiskide batek noiz edo noiz programan agertutako kontuak aipatzen zizkidanez kartsu, saioa ikustea deliberatu nuen. *Crear hoy las escuelas de mañana* (Gaur sortu biharko eskolak) izena zuen eta etorkizuneko balizko eskolei ziharduten, gaur egungo Bartzelonako eskola

hipermoderno bat —ez dut izena aipatuko, aski propaganda egin baitzioten saioan— oinarri hartuta. Tartean, Richard Gerver “hezitzaile eta heziketa-sistemen aholkularia”ri egindako elkarrizketa zegoen. Bada, laburtzearen, diskurtso ustez zientifista baten izenean mezu ultraliberalak ziren etengabe nagusi, dena egun inposatu den kalaka moderno higuinagari horretan: lidertza, emozioen kudeaketa, kontsumitzaileak —ikasleei buruz hitz egiteko—, ikasgela adimendunak, eta abar. Bartzelonako eskola pribatu —esan gabe doa— horretan askatasunean oinarritutako hezkuntza eta “humanismo kristauaren balio oinarritzakoak” sustatzen dira. Ikasgelak ordenagailuz beterik daude eta haurrak eskola-uniformez janzten dira. Deigarria egin zitzaidan eskolako arduradunetako batek “mundu erreala” esapidea zenbatetan erabiltzen zuen, eta aldiro “merkatua” edo “kapitalismoa” hitzengatik alda zitekeelako itxura hartu nion.

Atentzioa eman zidana izan zen nola saltzen den lotsagabeki “zientziaren eta objektibitatearen pedigriarekin hezkuntza” eredu zehatz bat. Ez da kontu berria, baina beste

behin konproba zitekeen nolakoa den zientziaren bote-re politikoa, eta zehazkiago, ustez egia biribilak botatzera dedikatzen den programa batena. Nola hasiko zara zalantzan jartzen balizko zientzialari eta aditu horiek guztiek diotena? Beraiena omen egia. Eta politika horretan sartzea bazterrak nahastea da, hezkuntza bezalako gizarte gaiez mintzo badira ere. ■



Deigarria egin zitzaidan eskolako arduradunetako batek ‘mundu erreala’ esapidea zenbatetan erabiltzen zuen, eta aldiro ‘merkatua’ edo ‘kapitalismoa’ hitzengatik alda zitekeelako itxura hartu nion



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Mikel Zurbarano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Pentsioen negozioa

Pentsio sistemaren erreforma bere jasangarritasunaren izenean egin nahi dute. Austeritate neurrien eta lan merkatuaren erreformaren ondoren Ecofinek eta NDFak

Espainiari ezarritako erreskate baldintzetako hirugarrena da erretiroaren erreforma. Arrazionalitate ekonomikotik eusten ez den eske-
ma jarri dute abian ekonomi agintariak: banka pribatu espainiarrak duen ezkutuko zor esanguratsua arlo publikoak jasan dezan honek sortutako defizit zein zor publikoaren zama erretiro eredia uzkur-tuz arindu. Hauxe da nazioarteko finan-tza espekulatzailerik eta beren menpeko agentziek derrigortzen duten baldintza, ELGA, NDF eta gisako erakunde-
en analisi eta iritzien legitimazioarekin.

Pentsio eredia erreformatzeko aldi-roko ahalegina igurikapen katastrofiko-etan oinarritu ohi da. Esaterako, 1990eko hamarkadan banketxe eta era-kunde ofizialekin lotutako azterketa ugarik 15-20 urtetako gizarte seguran-tzaren porrota iragartzen zuten. Haatik, krisi garaia bizi izanagatik bere saldoa superabitarioa da Espainiako Estatuan. Ukaezina da pentsio ereduak dinamikoa izan behar duela bertan eragiten duten faktoreak aldakorrek direlako, bizi itxaropenarena barne. Baina arlo tekniko soilean kokatu nahi den pen-sioen arazoa funtsean politikoa da. Arazoaren



DANI BLANCO



Lan ministro berriaren
estimazioaren arabera
2050ean %220 handiagoa
izango bada BPGa, ez da
ulertzen pentsioen gastuaren
igoeraren estimazioak
sortzen duen alarma



funts politikoa nabarmen geratzen da, krisia eragin duten finantza erakunde pribatuen kudeaketa okerra zuzendu beharrean hone-
kin loturarik izan ez duen pentsio sistema-
ren aldaketara behartzen denean. Are argia-
go erakusten dute izaera politikoa pentsio publikoen ordezkari fondo pribatuak hedatze-
ko ekimenek, noiz eta Erresuma Batuan, AEBetan eta abarretan pentsio-fondo pribatuek porrota ezagutu dutenean.

Finean, pentsio eta orokorrean ongiza-te estatuaren ereduaren zenbatekoa eta nolakoa erabaki politiko kolektiboaren ondorio dira. Pentsio sistema kontributi-
boa dugu Estatuan, Europako herrialde askotan aldiz mistoa –aurrekontuek ere hornitzen dutena–. Azken hauetan ez da pentsio sistemaren jasangarritasuna auzi-tan ipintzen, hezkuntza edo osasun siste-mena jartzen ez diren moduan. Herrial-dearen errentaren bolumena ezinbesteko abiapuntua da hori ebatzeko. Atzeraldiak atzeraldi, duela hogeitaz urteko errenta mai-laren bikoitza dugu egun Estatuan. Eta lan ministro berriaren estimazioaren ara-
bera 2050ean %220 handiagoa izango bada BPGa, ez da ulertzen pentsioen gas-tuaren igoeraren estimazioak (BPGaren %9tik %15erakoa) sortzen duen alarma. Atzeraldiaren mamua uxatzeko aitzakiarekin errentaren birbana-keta atzerakoa da pentsioen erreformaren bidez sozialista izeneko gobernuak indartuko duena. ■

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Hotza dago giroa. Etxeko atzealdeko lorategian zozoak eta birigarroak biluzten ari dira kaki zuhaitzaren azken fruituak; laranja zen lehen, paisaia horren zatia. Orain zuhaitzaren erradiografia adarren hezurdura da, arima bakartiarena bezalakoa. Eta ni horrela nabil. Idazterakoan, nire arima biluztua dago, apar-tak eskuetako larru azalean gordetzen diren beza-la, urarekin jostalari ibili ondoren. Negua da beti hotz, nahiz eta eguzki zuriaren izpiak laztantzen duen nire gogoa. Badakit algarak ez duela bere

Hotzaren itzala

oihartzuna itoko, baina zoriona ema-
ten dit, batez ere, izotzaren gainean oin jostalariak pausoa eman eta gero. Haurrek egunonak eman dizkidate

ziba dantzatzaren bitartean eta zibaren dantza ikusi eta gero berarekin dantzari hasi naiz; zibaren dantza askatasunaren balleta iruditzen zait, ez baita erraza izango sokatik askatu eta gero horre-lako jira-birak egitea. Nire dantza alai marraztu dut ezpainenetan zu musukatzeko, liburuak eskuar-tean duzun bitartean; pentsatzen dut musua azke-na izango dela eta horregatik nire maitasuna han-ditzen doa, lehen aldia, ez baita bete. ■

Gorka Urbizu


MUSIKARIA

Fuck off!

Beharbada zuek ere ikusiko zenuten *Fuck Off* erraldoia Londreseko Harrod's merkatalgunerik komertzialenean, eraikinak besteko garaiera zuten letretan idatzia.

Prentsan agertu ziren ekintza zuzenaren irudiak. Eguberri garaia, ikustekoa zen merkatal zentroaren argiteria, bertatik mezu txolinen bat igortzeko prest: *Merry Christmas, Happy 2011...* antzeko zerbait. Bertako langile ohi batek ordea, mendeku hartzea lortu zuen: kontrol aretoa barrutik itxi eta 10.000 bonbilatxoek osatzen zuten mezua nahierara aldatu zuen: *Fuck Off*, izarra zaitezte, zoazte denok pikutara.

Gosaritan ikusi nuen argazkia, sareko prentsari ohiko errepasoa ematen ari. Kafearekikoak egin eta irri gaixto bat erne zitzaidan, hitzekin adierazi beharko banu "Onnna!" esan nahiko lukeena, gutxienez hiru n-rekin. Bai, *Fuck Off*! Paris eta Madrilgo iturriko urak berdez tindatzea baino ekintza eraginkorragoa, inondik ere. Gutako norbaiti Gran Víako *Schweppes*eko iragarki sonatuan halakorik idaztea otu izan balitzaio? Santiago Segura bertatik zintzilikatzea baino deigarriagoa litzateke, benetako *Diadelabestia*: sutan jarriko lirake Moncloako piztia denak. Baina betikoa, sofaren erosotasunetik erraza da esatea. *Fuck Off*, hasteko halakorik egiteko ausardiarik ez dugun koldarroi.



DANI BLANCO

Erreserban osti-txar apur
bat gordetzea ez zait gaizki
etorriko, pasa den urtea
luze joan da eta honek ere
antzeko egunak dauzkala
diotso bankuko egutegiak

Afera da albisteak hausnarrerako bazka eman zidala. Kafeinak mailegatzen digun irudimen gehiagarri hori alde nuen, beraz laster nintzen eldarnio bizian. "Zenbat langabetu dauzkagu?" –egin nuen nire baitarako–. "Gutxi ez", erantzun gure aitak, zehaztasun harrigarritz. Bada, horiekin guztiekin gogoratu nintzen, eta oldoztu beharbada hamarkada abiatzeko ez litzatekeela iraultza molde txarra izango: bakoitzak zinpeko zaintzaile bat bost minutuz bahitu eta "gure" makrosaltokietan *Fuck Off*! erraldoiak idaztea, ohiko lelo digitalak ezabatuta.

Laster pasa zitzaizkidan, baina, momentuko ameskeriak zein kafeinaren ondorioak. Cantonáren porrotaz gogoratu nintzen. Eta ondoren bisitatu nituen webguneetan iragarki piloa zabaldu zitzaizkidan, pantaila osora zabaldu ere: Papá Noel eta bere ho-ho-ho gogai-karria ez bazen, Olentzero agertzen zitzaidan, BBKren logotipoa zakuan... *Fuck Off, Fuck Off* eta *Fuck Off*.

Laburbilduz: oldarkor xamar ekin diodala urteari, horrek zer esan nahi duen oso ondo ez badakit ere. Ea eusten diodan. Bai, badakit esperantzarako orena dena, ortzemugak ditugula begietan eta abar... Baina erreserban osti-txar apur bat gordetzea ez zait gaizki etorriko. Pasa den urtea luze joan da eta honek ere antzeko egunak dauzkala diotso bankuko egutegiak. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Xabier, Omaetxebarria amaren aldetik. Berrogeita hiru urte eta erdi joan dira ezagutu nuenetik, ekain epel batean ate bakarreko langile taberna bateko mostradorearen punta talai. Bertako hurbileneko mahaian eseri ginen, bera paretari bizkar emanda ni berari begira. Nire aldean adintsua zen, burusoiltzen hasia. Handik gutxira jakin nuen bere izena, hedabide guztiek eman zutena. Orduan ikasi nuen Gernikakoek, gurekin baino, eibartarrekin eta elgoibartarrekin zutela antza mintzatzean. Tokatu zitzaigun barnetegi berean kurtsoren bat pasa beharra. Edozein kiroletik urrun, gu gazteagoak zain-

El tío Bareño

tzea maite zuen. Gogoan dut bere eskirik gabeko eskiatzaile ibilera hura, geldoa, ez zeraman motxilak enbarazo egingo balio bezala. Kartzelan urteak egin ondoren, Espainiako ejertzitoak Afrikara igorri zuen zigortuta. Gasteizko HBk eta Cegasako LABk izan zuten bere berri, bertan egin zituen ondorengo urteak jubilatuta arte. Arteagan bizi zen. Urruñan izan ditugu haren bisitak, baina hilabete luzetan konpartitu ziegak ez nau abandonatzen bera barnean dudala, hain kantari txarra izanik zergatik iritsi nintzen hainbeste estimatuzera oraindik orain ulertzen ez dudala utzi gaitu arrabots handirik gabe. Gernika eta Sastreria Bareño. Osaba Bareño. ■

BERTSO BERRIAK

Karmele Mitxelena

Begiak itxita

I

Bakardadea bihurtu
denetik nire senar,
ohe hau da itzali den
desioaren kedar.
Bakarrik oheratzea
bada nahiko ezbehar
baina urguilua dut ta
ez dut egingo negar.
Hutsune baten maitale
maindireetan zehar,
amets egiteko ez da
konpainiarik behar. (bis)

II

Uste nuenean inoiz
ez zela iritsiko,
sarrailako giltza hotsak,
ordubatak ta piko.
Lo plantak egin eta dut
ametsetan segiko,
begiak itxiko ditut
eta nola itxiko.
Nik ez diot galderarik
egingo eta kito,
ez du gezur bat erantzun
beharrik edukiko. (bis)

III

Hanka puntetan sumatu
dut airean bezala
ilunpean gerturatzen
ixil bere itzala.
Behatzekin laztandu dit
goxo larruazala,
nire ezpainen gorria
topatuz berehala.
Muxu bat oparitu dit
baina muxu hutsala,
denbora asko da muxu
ematen ez didala. (bis)

IV

Begiak zabaldu ditut
juxtu une horretan,
muxu ematen ahaztu
zitzaien ezpainetan.
Nahiz ez duen emakume
lurrinik arropetan,
nahiz ez duen karminezko
orbanik kamixetan.
Galdetu gabe badakit
non egon den ta zertan,
bere argazkia dauka
zintzilik begietan. (bis)

V

Ez dakit nolakoa den,
ez dit ezer kontatu,
agian da prestigio
handiko abokatu;
kurba perfektuenekin
jantzitako pekatu;
agian da zerbitzari,
enpresari prestatu,
falta zaiona norekin
eta zertan gastatu,
baina nik baino gehiago
ezingo du maitatu. (bis)

VI

Ohea hain da handia
bera ez dagocela,
izarak hain dira hotzak
ta bera hain epela.
Jakinagatik maitale
baten maitale dela,
aukeratzeko ez diot
eskatuko bestela,
badaki badakidala
badakit dakiela,
bat hautatzekotan bera
hautatuko duela. (bis)

VII

Amesteko, sentitzeko
askeak izatean,
isiltasunak handitu
ohi duen tik-tak-ean
badirudi atzerako
kontaketa batean
sartzen dela maitasuna
gure izarapean,
goxo hartu banau ere
bi besoen artean,
beste batekin amesten
ari da bitartean. (bis)

VIII

Hautsa beste ezer ez du
gau-mahaiko marrazkiak,
behin egizkoa izan zen
ezkontza argazkiak.
Betetzen ez direnean
promesa garestiak,
aitzakiakin betetzen
dira hitzak, hizkiak;
ametsak soilik bihurtzen
badira amestiak,
isiltasunak kontatzen
ditu egi guztiak. (bis)

2010ean, Lazkao Txiki XIX. Bertsopaper Lehiaketako sorta irabazlea.

DOINUA: "Gai honek badu mamia".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Literatura

Dagozkion analisi tresnen erabilera maneiatzen ez dakienean erabiltzen du kultur kritikariak politika eta moralak. Literatura aztertu baino idazlearen lanari beto eskubidea jartzen dio orduan. Garai eta leku bakoitzak bere pentsamendu zuzena du eta horri ongi egokitzen zaizkion difamatzeko kliseak. Zentsoreek gurasokeriz eta lainezaz tratatzen dute irakurlea, bere irizpideak blokatu eta aurretiaz ondorioak azalduz. Autorea adituen elitea ondo tratatzera behartua dago orduan, eszenatokian iraun nahi badu behintzat. Horrek higuindu du hasieratik Marc-Édouard Nabe. Ordaina, salbuespenak salbuespen, eszenatik at performatzera jo behar izana, antiediziora.

Marc-Édouard Naberen azken trikimailua

HEDOÍ ETXARTE

Argazkiak: www.alainzannini.com webgunetik

“EZ, HAU BENETAN DELA NAZKAGARRIA, onartezina, zuri ere gehiegi irudituko zaizu” esan zidan orduko lagunak. Marc-Édouard Nabe izenez aurkeztu zidan, Alain Zannini zuen berezko deitura. 1958ko abenduaren 27an Marseillan jaioa eta ideologia komunista aplikatzen zuen eskola batean hezitakoa. Aita Marcel Zannini jazzmana. Jatorri greko-turkiarra. Bestelako galiar desiragaitzak ere gure

begi eta eskuetan izan ziren. *Le Monde Diplomatique*ko *gauchisten* kartografia konpultsiboki kontsumitzen genuen. Dieudonné M'bala M'balaren sukarrak bi urte lehenago jo gintuen, ongipentsatzaileen aurkako txertoa arrakastatsua da. Hark bezala, guk geuk ere gerru zaporea hartzen genion giroko aireari, “ez, sinetsiezaguzue, airea da!” errepikatzen ziguten bestetzuek. Uste baino finagoak dira



Goian Marc-Édouard Nabek idatzi eta kalean itsatsitako afixak, Beigbeder, Houellebecq, Angot eta Littell bezalako idazleen fenomenoaz daukan iritzia azaltzen. Behean orain arte idazle marseillarrak idatzi dituen liburuak.



dasta-zainak eta ordurako hasiak ginen sumatzen bazirela Frantziako Errepublikan, eta hedaduraz frankofonian, komunikabideek aipatzen zituzten gaizkile ofizialak, batzuk aipatzearren: Bernard-Henri Lévy, Éric Zemmour, Alain Finkelkraut, Besancenot, Stéphane Guillon, Didier Porte eta, ezbaierik gabe, Goncourtutako Michel Houellebecq. Melanchonek (Parti de gauche, PG) alarma piztu du berriki manifestaldietan harriak botatzen ari diren asko zibilez jantzitako poliziak direla, letretan gauza bera da aspaldian gertatzen Errepublikan. Aski jakina da benetako disidenteari ez zaiola mikrofonoa pizten ere, ez badago kasernan, epaile jaun-andrearen aurrean edo burdin artean hiltzeaz.

Aurkezpen txartela hastapenetik: –Antisemita! Eskuindarra! Anarkista!

Nazkagarria. Onartezina. Gehiegi. Kidea-
ren enbidoari jarraiki sareko bideoa ikusi

nuen. 1985eko otsailaren 15eko *Apostrophes* saioa zen: Bernard Pivot zuzendari eta Marc-Édouard Nabe gonbidatueta bat besterik ez zen. Bere lehen liburua aurkeztera zetorren: *Zorriariaren atsegina* (*Au régal des vermines*, 1985). Egia, harrigarria Nabe: ondo eta azkar apuntatzen zuen idazle gaztea, adjektibo mikatzak arin jaurtitzen bekainak gora zituela. Ez zen errepika-erri-flea berea, gorpuak hilik dauden egiaztatze-ko ixak, laukiak edo zig-zagak marrazten dituen horietakoa. Zehaztasun-erri-flea bekain arteetan kokatu eta fite erorarazten zituen buruak, ongipentsatzaileentzat jasan-zina: bala bakarra aski gernu saltzaileak bururik gabe uzteko, literaturako Vasili Zaitsev. Saioa bukatu eta kamerak itzalita Georges-Marc Benamou estudioa joan zen eta ukabilkadaka (ken)urratu zion ezkerreko begiko erretina frankotiratzaileari. Idazlearen analisi tresnetako bat suntsitu nahiko

zuen akaso ukabilen adierazpen askatasunaren integristak. Telesaio haren karietara Nabek jaso zituen bestelako kolpeak, aipagarriena LICRA erakunde komunitarista juduak epaitegira bideratu zueneko. “Difamazioa eta arrazaren-gatiko gorrotora bultzatzea” egotzi zioten orduan. Justiziak bertan behera utzi zuen epaia 1989an. Komunikabideek eta literaturako komisario politikoek egundaino jarraitu dute letrez berba egin behar zutenean irain politikoak jaurtitzen. Bi izan dira erabilienak: antisemita eta eskuin-muturreko. Nor eta Trotski jaunak laudatu eta haren prosa miretsi zuen autore berari gorazarre egiteagatik. Ferdinand Céline.

Edozein kasutan, ez da arrazoirik gabe-koa izango Frantziako letren munduko handien zerrenda irain honez edo bestelako irain politiko-moralez gainezka egotea: Aragon, Pierre Louÿs, Sade, Apollinaire, Breton, Bataille, Desproges, Siné, Serge Halimi, Alain Greish. Hil eta hogei urtera hain eskuzabala den letren munduak *Literatura Entziklopedia labor* sobietarrean idatzitako gauza bera haizatzen du, mitoaren itxuran: “Ilegalki erreprimtua. Hil ostean zuritua”. Garaikideentzat beranduegi halako errehabilitazioetarako, Nabek berak *Le Vingt-Septième Livren* hala iragarri zuen: “Gazte nintzenean André Suarès edo Léon Bloyren gisako destinoarekin egiten nuen amets; lortu dut. Izan gaitezen logikoak: nire garaikideek hiltzat hartzen naute-nez, ez omen naiz haien begientzat existitzen jada. Ehun urte barru ikusiko dugu elkar! Bitartean, kito”.

Adituei eta letren milieuari txistu liburu berrian

Azpian hondartza izan lezakeen harlauza eman du argitara 2010ean: *Idazteari utzi zion gizona* (*L'Homme qui arrêta d'écrire*, antiedizioa 2010), hogeita zortzigarren lana. Hogeita zortzi kontuan harturik aurrekoa (*Le Vingt-Septième Livre*, 2006) lehenengoaren (*Au régale des vermines*, 1985) edizio berria zela, bigarren pertsonan idatzitako bere bizilagun Houellebecqen aurkako hitzaurre piromano batekin atondua. Azken lanean, begi puntuan izan ditu Frantziako letretako hainbat lagun, epaiak ekiditeko beharrezko ortografia aldatetarik eginda, hauek dituzte tartean, seinatu: Bernard-Henri Lévy, Ruquier, Beigbeder, Benichou. Istorioa: idazteari utzi dion idazle

helduaren eta gazte blogari baten Parisko ibilaldia, hilik dagoen literatur munduko parke tematikoan barna.

Idazteari utzi dion gizona, hala egon zen sei urte, idazten ez zuela esaten han eta hemen, ezkutuan 700 orrialdeak sortzen. Bitartean, politikari buruzko panfleto literarioak idatzi eta Paris, Marseilla, Okzitaniako Tolosan eta Bordelen itsatsi eta banatu zituen, urrik. Tartean honakoak: *Zidane zirtzileria* (*Zidane la racaille*, 2006) etorkinak eta futbolariaren engaiamendu politiko ezaz, *Et Littell niqna Angot* (2006) Beigbeder-Houellebecq-Angot-Littell literatur fenomenoaren ingurukoa, *Damoklesen lebergailua* (*La Bombe de Damoclès*, 2007) Ahmadinejadaren lebergailu nuklearrak izateko eskubideari buruz edo *Azkenean beltza!* (*Enfin nègre!*, 2006) Obamaren hautuari buruz.

Gaitz da pentsatzea eleberri, panfleto, poema, kronika eta egunerokoak hain usu idatzi dituenaren iturria itzaliko dela *L'homme* ostean. Are zailagoa, ordea, ez-idaztearen ostean sor dezakeena imajinatze hutsa.

Zikloa hastapenera itzularazi du Nabek, bere webguneko banaketa sistemari esker azken liburuaren irabazien %65 eta %70aren artekoa erdietsiko du. Barra koderik gabe, banatzaileen eta liburu saltzaileen eskuetatik urrun

Editoreak, banatzaileak, kultur kazetariak, prentsako literatur kritikoak eta liburu saltzaileak “parasitoak” iruditu zaizkio Naberi

Boikot mediatikotik anti-ediziora

Komunikabideetan ez da ongi etorria izan luzaro, lehenengo alditik jaso ditu irainak haienean. Editoreak, banatzaileak, kultur kazetariak, prentsako literatur kritikoak eta liburu saltzaileak “parasitoak” iruditu zaizkio. Argitaletxei dago-kienean “handiak xurgatzaileak direla eta txikiak handi basterik ez dutela izan nahi” esan izan du. Hori dela eta, hogeita zortzigarrenarako muzin egin dio bai argitaletxe-banatzaile-saltzaile-aurkezpen saio tradizionalari, baita L'Harmattan bezalako autoedizioarako plataformei.

Apustua “anti-edizio” deitu du. *La Revue Littéraire* 44. alean adierazi duenez “kontra-

1921-ETIK, CAMPOS-EK HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

tu guztietatik eta muga guztietatik” alde egitera bultzatu nahi ditu beste idazleak. “Sistema ez dela menderagaitza” erakutsi nahi izan du. Hori demostratzeko historiari so egin dio. Victor Hugo Lacroixekin 1862an Guerneseyn batu zeneko hartara jo du. *Les Misérables*en irabaziaz %50ra banatu zituzten orduan, Lacroixen esku inprimatzea, editatzea eta liburu saltzailearena egitea egon zen. Ordutik, idazlearen etekinak murriztuz joan ziren eta 1913tik aurrera Gaston Gallimardek %10era mugatu zituen apurrak. Nabek dioenez Gallimardek “autoreei liburuaren eskusibotasuna eskatu zien, %10a irabaziko zutela esan zien ostean eta non sinatu behar zuten adierazi azkenik”. Victor Hugoren adibidera itzulirik, Lacroix jaunak eginiko edizioa eta gero, autoreak eskuizkribuarekin nahi zuena egin zezakeen. Marseillarraren arabera “norbaitek amaierako txistua jo behar zien parasitoei”. Zikloa hastapenera itzularazi du Nabek, bere webguneko banaketa sistemari esker azken liburuaren irabazien %65 eta %70aren artekoa erdietsiko du. Barra koderik gabe, banatzaileen eta liburu saltzaileen eskuetatik urrun. Fisikoki erosteko Parisko harategi bat, arropa denda bat eta bi loradenda aukeran, “lagunak” dituenengan eskuragarri.

Idazteari utzi zion gizonak engranajea liburu batekin blokatu zueneko

Naben azken liburuaz ez zuten berririk eman komunikabide klasikoek. Desiragaitzen erretserba bihurtu den *Ce soir, ou jamais!* Frédéric Taddéiren saioaz gain, inork gutxik eman zuen *L'homme* argitaratzearen berri. Kalapita piztu da Renaudot sarietarako hautagaien zerrendan azaldu denean. Liburudendetan ez den liburu hautagai zen lehenengoz. Lobbyak argi utzi du letren aniztasunerako duen interesa: lehiaketa nork irabazten duen bost haiei, urtero irabazleak dauden heinean berdin izango dira haiek garaile. Horren lekuko *Le Monde des livres*ek berriki argitaratutako emaitzak “Goncourt efektua”ren inguruan. Ia ibilbiderik egin gabeko Atiq Rahimiren *Syngué Sabour* (POL, 2008) hogeita hamahiru bider gehiago saldu zen saria jaso ostean (8.500 aurretik, 280.000 ostean), aski ongi saldutako Marie Ndiayen *Trois femmes puissantes* (Gallimard 2009) sei eta erdi aldiz gehiago (79.000tik 515.000ra) eta best-seller izandako *Les Bienveillantes*ek ere (Jonathan Littell, Gallimard 2006) hiru bider gehiago fakturatu zuen (190.000 ale aurrea, 615.000 gero). Nabek bere burua “worst-



Gisa honetan azaldu zen idazlea apirilko *Chronic'art* aldizkariko azalean. Titularrak: “Marc-Édouard Nabe: literaturaren zinezko lizunak sistematik ihes egin eta anti-edizioa asmatu du Interneten”. Erretzen ari den liburuak Gallimard etxean publikatua dirudi, asmo onen deklarazioa, inondik ere.

seller”tzat izendatu zuen. Eta ordea, dende nabarituko zuten –azkenean Virginie Despentes garaile izan duen– Renaudot sarietako zerrendan zenetako baten liburutik erakuslehoan ez izatea. Irabazi edo ez, izan den nahastea sortuta ohiko komunikabideak eta sareko hamaika lekutan berria zabaldu baita. Argi dago, Naben azken trikimailuak poltsiko askori ez diela betetzeko aukerarik eman. Finean, bere liburuak mespretxatzen zituzten liburu-saltzaileek ere salneurria zuten orain arte.

Bush semeak Irak lehertu nahi izan zuenean herrialde hartara joan zen txoroaren, Mesrine banku atrakatzalea heroia gisa marrazten duenaren, beltzak arraza goren dituenaren, dena normal doala “normalegi, hori da kezkarria” eta halako hamaika idatzi eta esaten dituenaren azken ekinga izan da hau, bere judutar eta plutokratikoko iritziek baino haserre gehiago eragingo zituen agian. ■

Soinu artea

Bellissimoa

2006 urtean Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erkiziak Ornitorrinkus sortu zutenean, animalia-proiektu koxkor berezi baten aurrean aurkitu ziren. *Freak* antzeko bat. Errima oinak, enborra klasikoa eta Eustakio tronpa itxurazko soina zuena. Hiru gurasoek amodioz hezi zuten etorri berria, eder eta bixkor. *Baldin* eta hala, orduan tira.

ALEX MENDIZABAL

“Ornitorrinkus musika garaikideak, elektronikak eta bertsoak elkar hartuta osaturiko hotsen eta ahotsen emanaldia da, *performance*-aren, kontzertuaren eta *happening*-aren artean kokatzen dena” (www.ornitorrinkus.org webgunetik)

Jaio bezain pronto, egitasmo *freak* hau emankorra izan zen. Jendaurreko saioak egiten hasi zen, non ahotsarekin, saxoekin, soinuak, argiak eta jendeari emandako partiturekin jolasten zuen, Iñigo Telletxea eta Ibai Gogorzarekin batera. Saio hauez gain grabazioak, idatzitako testuak eta pieza ugari egiten eta biltzen hasi ziren. (Ikus *Zehar* Aldizkaria 65. alea eta *Gatza-k* argitaratutako *Lancemos Irresponsables*, *Los Dados* poesia CDa, TITA/18).

Laugarren urtea beteta, oraingoan Ornitorrinkus egitasmoak aurkezten duena, “lehen lan luzea da”. “Proiektuaren hastapenetatik osatu eta landutako hainbat ariketa, musika edo kanta (norberaren gustuen arabera) biltzen ditu”.

CDak dauzkan grabatutako 12 pieza hauetan, dinamika akustiko oso bizia dago. *Mix* soinu nahasketa fina eta elegantea, eta aldi berean gordin eta ausarta. Maialenen ahotsa urruti eta soinu paisaia batean murgilduta entzungo dugu pieza batean, exotiko eta erakargarri. Erabat present eta aurre-aurrean beste batean. Ala saxoekin testura bat osatuz. Judith Monterok ornitorrinkoari gogoz puztu egiten dio. Saxo soinu aberatsez hornitu gorputza. Fita edo mihiarekin egindako soinu polifonikoak batzutan, atake bortitzeak bestetan. Erregistro ezberdineko saxoe-

kin sonoritate sendoa, melisma mikrotonalak, testurak eta dinamika konplexuak tartekatuz. Lujanbiok sailka ezin animalari ematen dio ahotsa (italianoz animalien ahotsei *verso* esaten zaie), errima-oinak zabaldu eta kantuka masajeatzen dizkio. Ornitorrinkoa bera bilakatzen ari denaren ideia bildu eta *off bizioa* eman. Hitza solastuz eta doinutuz.

Xabier Erkiziak, Eustakioren tronpa, tranpa bezala ulertzen du, jolasaren gogoa pizten dio proiektuari, zarata gozoz eta bidegurutze akustikoz josiz eta jantziz.

Pausa izango da hirukotearen kola. Nabarmena da Judith, Xabi eta Maialenek duten pausarako jarrera aktiboa. Haien arteko

konbinazioak lortzeko behar dituzten isiltasunak. Musikaren barruraino eramango duten diskrezio dotorea. Norberaren izaera mantendu ordez, beste bien ekarpenekin kolokan ipini. Honela saxoaren phonema bat elektronikak jaso eta biderkatu egingo du. Edota hitzak, zaraten eta isil-tarteen presentzia argituko du. Eta denon artean espazio akustikoa sintetizatuko dute.

Grabazioak ez dira erraz utziko sailkatzen eta piezaz pieza zure ustea ezustera bideratuko dute, musikaren zirrara.

CDaz gain, liburu poster tolestua. Joseba Sarrionandia, Ixiar Rozas, Xabier Erkizia, Jakoba Errekondo eta Maialen Lujanbioren testuak zenbait piezatan oinarritzen dira. Eta horiek guztiak Jose Belmonte marrazkilariak banan bana ilustratuak.

Objektu disko liburua, Ornitorrinkusen webgunean, Lanku bertso zerbitzuan eta Arto-artian “musika txikiaren katalogoan” eskuratu ahal izango duzue.

Disko-liburu-poster maitagarria, *bellissimoa*. ■



ORNITORRINKUS

Liburuak

KRITIKA

Atsekabe zaitut.
Irati Jimenez.
Txalaparta.
110 orrialde. 16 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



Denak katu, nork bere kale

KATU KALE asko dago, gizaki bezainbeste. Izan ere Katu Kale begirada da, mundua perzibitzeko sentsibilitate berezia, eta begirada gizakiari lotzen zaion zer bat, barrukoa eta pertsonala. Bi dira, ene ustez, gizakiaren moldea osatzen duten alderdiak, etengabe gatazkan: aparientzia edo “argitasuna” eta barruko prozesioa deritzodana, norberarena, zenbaitetan beldurgarria, iluna, Katu Kale.

Erdi katu eta erdi gizon-emakume den gizakia dugu, Irati Jimenezen *Atsekabe zaitut* eleberriaren protagonista. Nor? Edo-nor. Izenik gabeko eta beraz, izan zehatzik gabeko pertsonaiak, fantasia eta errealtatearen arteko nahasketa, espazioen tratamendua, gizakiaren bi alderdi gatazkatsu horien ispilu bilakatu dira.

Eme aldatu da baina Hamarrek oraindik ez daki. Lagun minak dira, hain min, haginka egiten diotela elkarri. Biak erdi katu eta erdi gizaki, jendearengan dagoen berezko atsekabea piztean lan egiten dute. Bilbo distiratsu eta itxuraz zoriontsu baten parte dira, baina Bilbok gizakia bezala, badu bere alde ilun-ezkutua: “Ahanztura, Doluminak, Amorrúa (...) Katu Kale leku horiek guztiak dira, hiriaren distiraz haratago, hutsune mortuetan haziak” (79. orrialdean). Mundu horrek ito egiten du Eme, ez daki zer duen. Aldatzen ari da baina ez daki zergatik, eta itolarri horren lekuko bilakatzen gaitu. Prozesu horretan, irakurle gizon-emakumeak katutasuna (gizatasuna, agian?) bereganatzen du. Zoriontsu izan nahi dugula konturatzen gara baina horretarako atsekabearen beharra dugu, gaur maitatu eta bihar gorrotatu egiten dugun bezala. Zergatik? Batek daki. Horra giza-bizitzaren zentzu tragikoa. Sentimendu antagonikoak dira, bai, baina ez derrigor erabat bateraezinak. Biekin elkar-bizitzen ikasi beharra dugu aurrera egiteko, aldatzeko, izana eraikiz joateko.

Baina alaketak iluntasunak bezala beldur ematen du, horregatik batzuek argiz beteriko kaleak nahiago dituzte. Hala ere, gizakia argiz zein iluntasunez osatuta dago, eta bide distiratsue-nean katu bat izango du zain, zoriontsu izateko sufritzen ikasi behar dela gogoraraziko diona.

Nahi ala ez, denak gara katu, baina norberak hautatu egiten du zein kale nahiago duen. Horietarik bat aparientziaz zoriontsua da, bestea misterioa da oraindik: ongi etorri bizitzara.

Ezin amaitu Irati Iriarte, eleberriaren ilustrazioen egilea, zoriondu gabe, miseria hain modu ederrean marrazten jakin izanagatik. ■

‘Senez’ aldizkariaren zenbaki berria

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpre-teen Elkartek publikatzen du *Senez* aldizka-ria. Esku artean duguna 39. zenbakia da eta edukiz beterik dator, ohiko moduan. Aldiz- kariko artikuluen artean badira gai teknikoei heltzen dietenak –Xavier Gomezek testu corpusez eta hizkuntza-plangintzaz idatzi du, Imanol Urbietak itzulpen-memorien ostean zer etor daitekeen galdetu du, Mikel

Morrisen hiztegi gintzaren ikuspuntutik heldu dio itzulpen gintzaren gaiari...–, baina baita publiko oroko- rragoari zuzendutakoak ere. Adibidez, Aiora Jakak


Jon Miranderen itzulpen argitaraga- beak ekarri ditu. Harribitxi bat, zalantzarik gabe, euskal literatura- rentzat. ■



Senez 39.
Batzuen artean.
EIZIE.
310 orrialde.

‘Karmel’ aldizkariaren 2010eko azken zenbakia

Urtean *Karmel* aldizkariaren lau zenbaki ate- ratzen ditu Euskal Herriko Karmeldarrak elkarteak eta 272. zenbakia daraman hau da iazko azkena. Kultura eta gizarte gaiak lan- tzen ditu batez ere, eta beti izaten du litera- tura lantzeko tarte zabala. Urtea bukatu aurreko azkeneko zenbakian Aita Martin Uriarte Odriozola izan dute gogoan. Gizar- te gaietan, gazteak, aisialdia eta euskarari buruz Euskaltzaindiko Jagon Sailak antola- tu jardunaldien kronika ekarri dute. Roman Garmendiak pentsamendu postmetafisiko- az idatzi du iritzi sailean. Eta literaturari eskainitako orrialdeetan, azpimarratzekoa da Luis Arostegik itzulita aldiz- kariak dakarren Hölder- linen poema sorta. ■



Karmel 272.
Batzuen artean.
Euskal Herriko Karmel- darrak.
191 orrialde. 13 euro (urteko harpidetza).

Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Arnas bakoitzeko
ernetzen.**

Fly Shit.

Autoekoizpena.

Iraupena: 31'21". 5 euro.

Hardcorearen mugetatik erabat aske

BERGARA hardcorearen irla txikia da, txikia eta isolatua, baina oso emankorra. Adibide argia da partaide gazteak dituen talde beterano hau. Hardcoreari buruz hitz egitean ez gara estiloaz bakarrik ari. Gauzak egiteko modua ere bada. Eta bada Gaztetxean, Txapa Irratian eta bestelakoetan buru-belarri ibiltzea. Musikari dagokionez, tamaina handiko jauzia eman dute, eta euren jomuga hardcorea bada ere, emo eta post ukitu asko aurki ditzakegu lan honetako kanta

indartsu eta borobiletan. Bap! eta RKL ezingo dituzte aldendu, baina giro, melodia eta erritmo aberatsekin ederto jolasten dira, abestiak biderkatuz. Eskola zaharra ahaztu gabe, Fugazi ere izan dute ikaskide. Hitzetan, beldurraren eta kontrolaren aurka mintzo dira, baita gertuko duten Angiolillori buruz ere; eta norberarengan sinisten dute, baita talde sorkuntzan ere.

www.myspace.com/flyshiteulikk

Fly Shit

«Daukaguna aldatzekotan, beste bide, ideia, mugimendu batzuk sortu beharko dira»

UNAI AZKARATE

Disko honetako hitzak politikoagoak eta zuzenagoak dira.

Beti tartekatu ditugu hitz zuzenak eta pertsonalagoak, baina oraingoan batez ere kanpora, ingurura, begiratu dugu idazterakoan, guztia gero eta okerrago dago-eta. Panfletismoan ez erortzen eta hitzei sakontasuna ematen saiatu gara.

"Beldurra" eta "ezezaguna" kontzeptuak askotan agertzen dira diskoan...

Gizartean zabalduta daude. Gizartea kontrolpean izateko, beldurra era askotan agertzen da: gaixotasun kutsakorrak, hipotekak... eta gero agintariak euren burua salbatzailetzat aurkezten dute. Baina disko honetan asko errepikatzen den beste hitz bat "ernetzen" da, eta ikuspegi baikorrago bat emateko, *Arnas bakoitzeko ernetzen* izendatu dugu diskoa. Daukaguna aldatzeko-



tan, beste bide, ideia, mugimendu batzuk sortu beharko direla uste dugu.

"Ontzi galdu bat, nekatutako eta zorabiatutako marinelek gidatuta ere, porturatu daiteke". Zuek ere, hurbilean musika erreferentzia handirik izan gabe, aurrera egin eta lema biratzeko gai izaten zarete?

Norberak egiteak (DIY) hori erraz-

ten duelakoan gaude, guk ezartzen dugu gure erritmoa, konpromisoa... Ilusioa eta gogoak daukagu eta asko disfrutatzen dugu. Euskal Herrian baldintzak ematen dira: kontzertuak egiteko zirkuitua dago (gaztetxeak, tabernak, aretoak), interesa azaltzen duen jendea ere bai, eta horrek aurrera jarraitzen laguntzen du.

"Jakiek beti dute zapore berbera, ez da arriskatu behar". Bada hori baino bizitza

aspergarriagorik eta anti-kreatiborik? Hori da abesti horretan, sarean, zabaldu nahi dugun galdera. Norbera izateko aukerarik eskaintzen ez duten tokiez ari gara. Egitura jakin batzuen barruan dena programatuta dago, gure jokabideak kontrolpean izateko. Eta sormena da daukagun dohainetako bat, baina batzuetan "arriskutsua" izan daitekeenez, desagerrarazi nahi dute. ■

Ezpalak

JON TORNER

Zaragueta aita-semeen argazkiak Nafarroako Museoa



IRUÑEKO Nafarroako Museoa Agustín eta Gerardo Zaragueta aita-semeen 75 argazki izango dira ikusgai 2011ko maiatzaren 2a arte. 1887tik 1940ko hamarkadara arte

egindako argazkiak biltzen ditu: erretratuak, erreportajeak, arkitektura, hirigintza, landa-paisaia, jaiak... ugariak dira erakusten diren generoak. Bestalde, Mercedes Jover izango da Nafarroako Museoko zuzendari berria. Kargu hori hemezortzi urtez bete duen Miguel Angel Hurtadoren lekukoa hartuko du Joverrek. Orain arte Ondarearen erregistro eta Ondasun Higigarrien saileko burua zen.

Nontzefilmak lehiaketaren edizio berria

NONTZEBERRI.COM webguneak Nontzefilmak Zinema eta Animazioko Film Laburren Lehiaketa jarri du martxan, Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren (FANT) laguntzaz. Aurten, nobedade gisa, eta 2011n sareratuko den Nontzeberriren webgune berria sustatzeko asmoz, spot-lehiaketa abiatu dute. Lanak jasotzeko epea 2011ko otsailaren 25ean amaituko da. Orotara 10.000 euro banatuko dituzte saritan. Argibide gehiago: www.nontzefilmak.com.

Amaia Zubiriak biloba txikientzat sortutako abestiak bildu ditu *Amona Mantangorri* diskoan (Brian's Records). Musikari aparteko garrantzia eman nahi izan diolako, aspalditik lagun dituen musikari profesionalengana jo du Zubiriak. Hala, Pascal Gaigne, Javi Area, Luis Mari Moreno eta Ritxi Salaberria bezalako artistek parte hartu dute diskoan.

Artium museoan (Gasteiz) fotokazetaritzaren historia laburbiltzen duten 200 liburu, film eta irudi izango dira ikusgai 2011ko apirilaren 11ra bitartean. XX. mendeko gertaera garrantzitsuenek osatzen dute erakusketaren ardatza: gerrak, aldaketa politikoak, arazo sozialak, kirola... Cartier Bresson, Robert Capa, Gerda Taro eta Dorothea Lange argazkilarien irudiak bildu dituzte, besteak beste.



Fermin Erbitiren kazetaritzaren inguruko *Hiru koaderno txiki* eta euskaldunek literaturan duten irudikapena aztergai duen Kepa Larrearen *Itzalak harturik* lanek jaso dute Juan Zelaia saiakera saria. Pamiela argitaletxeak 2011ko martxoan plazaratuko ditu bi liburuak. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak antolatutako Becerro de Bengoa euskarazko saiakera saria Xabier Agirrek irabazi du (*Rawlsen arrastoak* lanarekin), Ernestina de Champourcin euskarazko poesia saria Juan Jose Ispizuak (*Itsas sotoetan ur-behera goibel amiltzen doazen bainbat sentsazio biziz*) eta euskarazko ipuinen Ignacio Aldekoa saria Jose Mari Seguirolak (*Oso gauza obargarria*).

● **Joan Mari Irigoien idazleak Garan:** «Dagoeneko nobela batekin ari naiz lanean. Armen inguruko nobela da. (...) Hipokrisia eta faltsukeria izugarria dago. Orain gutxi Wikileaks-eko dokumentu horiek atera ziren, egon den espioitza eta zikinkeria hori guztia argitara emanaz. Horren aurrean agintari batzuek esan dute 'pirata' moduko hauek terroristak direla. Baina zer gertatu zen orduan 80ko hamarkadan Iran eta Iraken arteko gerra izugarri hura piztu zenean? (...) Mundu honek pertsona bat hiltzen duena espetxera joaten da, euro bat lapurtzen duena espetxera joaten da, baina mila milioi euro lapurtzen dituen edo milioitik gora pertsona hiltzen dituen ez doa espetxera».

● **Laida Aldaz** artistak uko egin dio Nafarroako Artista Gazteen Topaketak lehiaketako arte plastikoetako bigarren sariari, Nafarroako Gazteria Institutuak artista gazteekiko eduki duen politikarekin haserre. *Berriak* haren hitzak jaso ditu: «Nik Nafarroako Gobernuaren eskutik diru laguntza jaso nuen ikasketak kanpoan egiteko, eta beti saiatzen naiz kanpoan egiten ditudanak hona ekartzen. Dirua jaso dut, eta erakutsi nahi dut zer egin dudan diru horrekin. Erraztasunak baino gehiago, ordea, zailtasunak jartzen dizkirate hori lortzeko. Trabak jartzen zaizkie kanpoan diren artista nafarrei beren lanak Nafarroan erakusteko. Handiagoak dira jartzen diren oztopoak, ematen diren erraztasunak baino».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Denbora neurtuaren menpekoak bihurtu gara

Jose Luis Otamendi: Bustilehorreko poemak.
Urtarrilaren 15a; 18:00etan, Hendaia Mediategia.

BUSTILEHORREKO POEMAK (ITSASOAK ETA JENDEA). Horixe Jose Luis Otamendiren ekitaldiaren izenburua. II. Neguko Poesia saioaren kariatara heldu da Azpeitiko poeta. Juan Azpillaga berarekin heldu ere, doinu email; Robert J. Flaherty-ren irudiak lagun dituztela. Bidasoako lapurtarrok, hitzen lapurrok, dozena bat poema arakatu dugu anartean. Ele zaharren eta berrien maitaleok irrikaz igurikatzen dugu errezitaldia, eta, zu, hitz hauen irakurle, aizu, zure aiduru gaude.

Erlojuen mekanika liburuaren eskizak bildu ginen itsasoko jendeok larrazkenean. Egileak testu andana igorri zigun denboraren makinan murgiltzeko, eta horietan busti gara neguaren atarira bitarte.

Hainbat pentsu izan dugu. Hona aburu bat. Bat, hamaika artean: "Denbora neurtuaren menpekoak bihurtu gara". Denboraz harago edo honago baina,

aberria hauteman dugu, eta maitasuna. "Eta poeta, eta poeta..." hitzen doinua iradoki digute Otamendirenak.

Atx poetak! Lasai irakurle, Jose Luis poeta munduko dugu. Jon Anza-ri poema bi eskaini(ko) dizkio: *Murmurio balako bat* eta *Murmurio balako bi*.

Eta hitzen ondorioetan, hona poema bakoitzeko beste aburu bi:

Bat: "Poetak bizia ematen dio Joni, mintzarazten baitu, bere larruan ezartzen da. *Egon* eta *Izan* aditzen arteko jokoak existentzia fisikoaren eta espiritualaren aldarrikapena adierazten du".

Bi: "Liluramendua dago, baina ez da erreala. Bizitzaren eta heriotzaren arteko mugarekin jokatzeko du poetak. Gorpu baten burutazioak dira. Zerbait bizirik dagoen frogatzen da".

Ei, irakurle, hitzok ez dira soilik nireak, literaturaren menturazaleonak dira: Pantxika, Juanita, Marian, Santi, Gema, Miren Edurne, Josebarenak (ere) badira. Zer iruditzen? Hendaia jiteko gertu? Menturatuko al zara? ■



ZALDI ERO



2011ko egutegia

Salgai dagoeneko!



EGUTEGIA opari

EGURREZKO TAULA 50€



EGUTEGIA 8,50€



BURNIZKO EUSKARRIA 5€

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak


ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

Ihesi

Testua eta argazkiak:

GONZALO IRIBARNEGARAY

Etiopia Tribuak galbidean



Harrotasuna, duintasuna, dotoretasuna... Urrin hori dario etiopiar herriari edo, hobe esanda, etiopiar herriei, Etiopiako etnien, kulturen, ohituren eta hizkuntzen aniztasuna dela eta, ezin baitugu herri bakarraz hitz egin. Mursi, karo, hamer, konso, arbore, amara, tigre... dira Afrikako adarraren bihotzeko lur eremu zabal honetan bizi diren tribuetako batzuk.

LUR OROTAKO IBILGAILUA Addis Abebako nazioarteko aireportuan zain geneukan, ur, gasolina eta jaki bidoiez kargatuta, eta hegazkina lurreratu eta minutu gutxira hegoalderantz abiatu ginen, Sudaneko hegoaldeko hasi eta Mozambikera ino Afrika osoa zeharkatzen duen mendilerroantza.

Herrialde afrikar gehienetan gertatzen den legez, hiriburutik irteteko lehen kilometroak kaotikoak izan ziren. Errepidearen alde banatan denda kalamastrak, itxuraz noraezean zebiltzan milaka pertsona, zirkulazioa moteltzen zuten kamioi ketsuak, turuta hotsak ezker-eskuin eta, azak ontzeko, erritmo anarkikoa asfaltoa behin eta berriro zeharkatzen zuten ahuntz eta behi taldeek eteten zuten, motordun mehatxuaz ohartu gabe. Dena den, zenbait aurreratze eta balaztada eta gero, gidoiari jarraiki, hori guztia desagertu egin zen, eta

kontinentearen berezko lasaitasuna nagusitu zen.

Berehala lehen geldialdia egin genuen hurrengo egunetan lagun izan genituen aintzira anitzetako batean; aintzira handiak, ertainak eta txikiak; aintzira urdinak, berdeak eta gorriak, luraren osagaien arabera; aintzira garbiak eta bilharzia eta malaria kutsatu ahal dizutenak; hegazti koloreaniztunen alaitasuna eta lasaitasuna duten aintzirak eta hipopotamoen nahiz krokodiloen arriskua dutenak; guztiak, azken batean, aintzira afrikarrak.

Bide latzak

Bi egun behar izan genituen hegoaldeko lurraldeetara, Etiopiarren, Kenyaren eta Sudanen arteko muga inguruetara iristeko. Bideak, mendi-koak batzuk, sabana zeharkatzen dutenak besteak, nekezak eta akigarririk dira, eta goi mailako 4x4 ibilgailuak behar dira horiek ibiltzeko.

Beharbada horri esker, lurralde hauetan bizi diren tribuek beren identitateari, ohiturei, kulturei, jantziei edo jantzirik ezari, eta gorputz osoan izan ohi dituzten apaingarri eta osagarri erakargarriei eusten diete.

Arbore herriaren azokan

Bidean zenbait herrixkatan gelditu ginen, gehienak nekazari eta abeltzain guneak. Egurrez, adobez eta lastoz egindako etxeak, fatxada zilindriko eta teilatu konikodunak, familia bereko kideek animaliekin partekatzen zituzten batzuetan. Hala ere, Kenyako mugatik hurbil, arboreen herrixkara iritsi ginenean egin genuen topo benetako lehen tribu "basati"-arekin. Gizonezkoak nahiz emakumezkoak erdi biluzik zebiltzan, soinean larru zati txiki batzuk besterik ez eta askotariko lepoko, eskumuturreko, besoko, belarritako eta luma ugari zituztela.




Helduek begirada zorrotza zuten, ez, ordea, oldarkorra, eta haurren irribarrea opari ederra izan zen bidaia gogorra eta gero.

Iritsi ginenean asteroko azoka betean zeuden eta beste herrixetako dozenaka arbore hurbildu ziren garia, larruak, apaingarriak eta ganadu aleren bat trukatzera. Bertakoek, bereziki emakumeek eta haurrek, berehala inguratu gintuzten, guri begira, gu ukitzen, eta gure belarrientzat oso arrotza zen hiz-

kuntzan hitz egiten. Bero handia egiten zuen, tropikala, eta eguzkiak gogor jotzen zuen. Gainera, gure usaimen europarrarentzat ezohikoak ziren askotariko usain biziak are gehiago horditu eta mundu are zoragarriagoetara eramanez gintuzten. Tratu saioa bizia izan zen eta, leher eginda, berriro ibilgailua hartu eta handik bi ordura zegoen hamerren herriarek abiatu ginen, han ere asteroko azoka egiten ari baitziren.

Hamerrak, herri lasai koloretsua

Hamerren jantziak arboreen antzekoak dira, baina sofistikatuagoak, batez ere emakumeek daramatzaten koloretako gerrikoak eta lepokoak. Lepoko horiek, formaren arabera, emakumeak lehen ala bigarren mailakoak diren adierazten dute. Gizonezkoak nahiz emakumeak gerriatik gora biluzik ibili ohi dira eta lur gorritz tindatzen dituzten orrazkera bitxiak daramatzate.



Lerro hauen gainean eta aurreko orrialdean: mursi leinuko emakumeak, beheko espaina apaintzeko jarri ohi duten plater tipikoarekin. Ezkerrean: goiko argazkian, lur orotako ibilgailuarekin Omo haranean zehar bidaiatzen, herrialdearen hegoaldean; erdian, hamer herrixka bateko sarrera; eta azpian, hamerren etxola batean infusioa edaten. Eskuman: hamer leinuko emakume ezkongabeak, dantza tradizional bat egiten.

Hamerrak herri lasaia dira. Jakina, gu herrixkara iritsi izanak jakin-mina piztu zien eta ehunka begi adi genituen. Baina horrek ez gintuen gogaitu, alderantziz. Haurrek agurtu egiten gintuzten, helduek irribarre egiten ziguten eta, pixkanaka, zenbait talde-tara hurbildu ginen oinarrizko komunikazio keinuak trukatzeko asmoz.

Amatatuz doazen nortasunak

Biharamunean karoen lurraldera joan ginen, Afrikako adarrean galzorian dagoen tribuetako baten lurraldera. Herri honetako 1.500 kideak beren identitateari eusteko borrokan ari dira, baina, gainerako tribuenaren antzera, beren izaera ere pixkanaka itzaltzen ari da.

Karoen herrixka Omo ibai emaritsuen labar dotore baten gai-

nean dago, Etiopiaren, Kenyaren eta Sudanen arteko mugatik oso gertu. Karoak maisuak dira beren gorputzak apaintzen; goitik behera margotzen dituzte eta, biluzik bizi direnez, apaindurak egunero erakusten dituzte. Osagarriak egiten ere trebeak dira eta apaingarriak metalez, harriz, hostoz, adarrez,

Galzorian dagoen Karo herriko 1.500 kideak beren identitateari eusteko borrokan ari dira, baina, gainerako tribuenaren antzera, beren izaera ere pixkanaka itzaltzen ari da

frutez nahiz naturak eskaintzen dien beste edozein materialez egiten dituzte.

Mursi borrokazaleak

Mursien eskualdera iristeko bidea bidaiako gogorrena izan zen. Gauean kanpadenda inguratzen zuten dozenaka babuinoren zalaparta jasan eta gero, tribu borrokazalea bizi den mendietara igotzen hasi ginen. Gau osoan euria egin zuen eta ibilgailua, erabat lokaztutako bideetan gora, batera eta bestera astintzen zen. Zenbait ibai goratuta jaisten ziren eta horiek zeharkatzea ez zen batere erraza izan. Baina hainbat ordu ahaleginean eman eta gero, mursien herrixka nagusira heldu ginen.



Mursien tribua 7.000 pertsona inguruk osatzen dute, eta adinaren arabera banatutako taldeetan antolatuta daude. Zaharrenek hartzen dituzte erabaki garrantzitsuenak, hala nola herrixka lurraldez aldatzea edo inguruko triburen bati gerra deklaratzeko. Nekazaritzari eta abeltzaintzari esker bizirauten dute, baina azken urteetan ganadu asko hiltzen ari zaie tse-tse euliaren ziztadak jota eta horrek egoera are gogorragoa izatea dakar. Beren ohituren artean nabarmenenak ezpainetako platerak eta eskarifikatzeak dira. Emakumezkoek beheko ezpainean ebakia egiten dute, ezpaina zintzilik geratzen zaie eta erdiko bi hortzak erauzten dizkiete. Ondoren, ebakian platera sartzen dute eta ezpainak, pixkanaka, eman egiten du. Urteen poderioz, ezpainetako platerak hamabost zentimetroko diametroa izatera ere irits daitezke. Bestalde, gizonak zein emakumeek azalean ebakiak egiten dituzte, hainbat forma marrastuz. Ondoren, zaurian errautsa botatzen dute eta, hala, orbaina are ikusgarriago

bihurtzen duen infekzioa eragiten dute. Orbaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta erakargarriagoa izango da hura daukan pertsona. Mursietako askok orbainez osatutako benetako marrazkiak dituzte soinean.

Herri honen beste ezaugarrietako bat makil borrokak dira, zauritu asko ez ezik, hildakoren bat ere eragiten duten dozenaka gerlariren arteko borrokaldi latzak.

Mursien herrixkan eragin genuen tentsioa agerikoa izan zen; han eman genituen orduetan erne egoteari ez genion utzi. Beharbada haien itxura oldarkorragatik, edo beharbada gure irudipena besterik ez zen izan...

Mursien herrixkan eragin genuen tentsioa agerikoa zen; han eman genituen orduetan erne egoteari ez genion utzi. Beharbada haien itxura

oldarkorragatik, edo beharbada gure irudipena besterik ez zen izan... Ziurrenik ez dugu sekula jakingo.

Hego eta ipar, bi Etiopia

Addis Abebara itzultzeko bidean, hainbat eguneko bidaia nekagarria eta gero, Key Afarreko azokan gelditu ginen. Bertan, inguruko tribuen nahasketa bitxia egon arren, bannak dira nagusi.

Hasieran, gainerako herrixketan bezala, haien arreta erakarri genuen, baina berehala gutaz ahaztu ziren eta, eroso, tribuen arteko harremanei eta negoziazioei erreparatu ahal izan genien, baita bakoitzaren estatusa adierazten zuten jantziei eta osagarriei ere.

Etiopia iparraldera bidean, Addis Abebatik igaro ginen ezinbestean. Herrialdearen iparraldea hegoaldearen guztiz kontrakoa da. Zenbait hiritan, hala nola Bahir Dar, Gonder edo Lalibela, ondo iraun duten tenplu eta gaztelu ikusgarriak daude, batzuk XII. mendea baino lehen eraikiak. Baina hori, beste Etiopia bat da. ■

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

KETA PELIKULA		PERTSONAIA- REN IZENA UGAZTUN BASATIA		FALTSU		1500 ERROMATAR ZENBAKIZ NAUKA		INGURU NAHIA, DESIRA		GABON KANTA ONDAMUA, BEKAIZKERIA		GAIA, MATERIALA ADAR KOLPEZ JO
				EMAITZAK, EFEKTUAK OSMIOAREN SINBOLOA								
INFIN., LEPORATU KORAPILA- TUTA						PERTSONAIA- REN ABIZENA TONA						
									ERABAT BUSTITA NAIZEN HAU			
MAIZTASUN ADIERAZTEN DUEN PARTIKULA	ZAKUR PERTSONAIA- REN JAIOTERRIA									JAINKO EGIPTOARRA IGITIAZ MOZTU		
				AGINPE, ERREINU					TOKA, DU TXEKOR EMEAK			AHULA, ARGALA
EUSKO ALDERDI JELTZALEA ZUKU												
				ANPEREA MODUAK					AR SORTZAILEA OLERKI LIRIKOA			
NIHAUR GARRAIOA				ERAKI, ZAURI ADIA, AUHENA		NIPIOAREN SINBOLOA GORPUTZ ATAL		OXIGENOA LANDARE MOTA		DAUKAT (ALDERAN- TZIZ) BAITA		
												ELEKTROIA ARTSENIKOA
NAGITASU- NEZ APUR, EZDEUS							ORDUAN GIGA					
				BEHAR DEN BEZALA					NAFARROAKO HERRIA			



DANI BONGIO

Kike Amonarizen umorea

Marseillan udan

Udan Marseillan izan zen bilbotar batek kontatu zidan istorio hau.

Marseillara autoz sartu eta hiriaren erdiguneko kale batetik zihoala, bihurgune bat hartu eta ia talka egin omen zuen erre beretik baina kontrako norabidean zeto- rren auto batekin. Sekulako balaz- tada eman ondoren, leihatila jaitsi eta asaldatuta eta bere onetik ate- rata, oihuka hasi omen zitzaion beste autoaren gidariari, zekien

frantses apurrean:

– Erotu egin al zara edo? Zure ezkerretik ari zinen gidatzen eta!

Eta marseillarrak, autotik jaitsi ere egin gabe:

– Marseillan udan ez da gida- tzen ez ezkerretik eta ez eskuine- tik... Hemen itzaletik gidatzen da, turistatxo gizagaixo txepela!

Soluzioa

	B	E	B	M	I	N	E
F	I	L	M	O	R	I	O
L	E	P	O	R	A	P	I
N	A	H	A	S	T	A	B
	A	O	R		N	I	R
O	H	I				D	I
E	A	J			B	I	G
U	R	A				A	I
N	E	R	A	P	N	O	T
G	A	R	R	A	O	B	I
N	A	G	I	K	I	H	A
M	I	K	O	N	G	I	E

ASISKO

MATTIN IRIGOIEN

ADUR

OKATXU

hegal egiten



Okatxu arkumea jaio da Ipar Euskal Herriko arditegi batean. Ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiole amerikar euskalduna, mendizale bizkaitarrak... Mundua ezagutzen joango da pixkana-pixkana.

Elkarriketa bizi eta jostariak, hizkuntzaren aniztasuna lanabes: Xuka, Toka eta Noka, euskalki arteko jolasak, artzain-eleteria, erran zahar eta berri... Eta hori guzia abentura dinamiko eta irringarrian zehar.



15€



KAMISETA + LIBURUA

22€


argia

 ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Hodeien ereintza artifizialak uste baino euri gutxiago eragiten du

BEIJINEKO OLINPIAR JOKOAK egin baino lehen poluzio handia zegoenez, Txinako Gobernuak, eguratsa garbitu nahian, euri artifiziala eragiteko asmoa azaldu zuen. Ez dut inon irakurri ekintza hura arrakastatsua izan zen ala ez, baina Tel Aviv-eko Unibertsitateko (Israel) Pinhas Alpert eta Noham Halfon ikerlariak zantzaz jarri dute munduko hainbat lekutan euri artifiziala sortzeko erabiltzen diren sistemen arrakasta.

Aipatu ikerlariak Galileako itsasoan egindako hodei-ereintza eta lortutako emaitzak aztertutako euren ustez ereintzaren ondoren gertatutako euriteak kasualitatez baino ez dira gertatu. Hain zuzen ere, sei urte iraun zuen epe eurtsua, uste zenaren aurka, ez zen izan hodeiak ereitearen ondorioa, zikloi espezifiko batzuen baizik.

Ikerlarien ustez, Galileako itsasoan gertatutakoa munduko toki askotan gerta daiteke: euriteak patroio meteorologiko zehatz batzuen ondoriozkoak izan daitezke, eta ez hodeiak ereitearen emaitza.



TOTALGADHA.COM

Hamasei solairuko hotela eraiki dute astebete eskasean

TXINARA GOAZ berriz. Hango Hunan probintziako Txangsha hirian hamasei solairu, 50 metroko altuera eta teilatuan heliportua duen hotela eraiki zuten bost egun eta hamasei ordutan. Proiektuaren diseinua Broad Sustainable Building izeneko bulego tekniko txinatarrek egin du.

Egitura metalikoa du hotelak, eta bederatzi graduko lurrikarak jasateko ahalmena izateaz gain, porlanezko eraikinek baino ezaugarri hobeak ditu energia-kontsumo eta zaratari dagokienez.

Ezaugarriok *a priori* onak baldin badira ere, erabileraren poderioz eraikinak nola eboluzionatuko duen jakiteke dago oraindik.

Hezur-muin transplantea HIESa sendatzeko

HIESa zuen gaixo bati GIBa-
rekiko erresistente zen pertso-
na baten hezur-muinaren
transplantea egin zioten orain
dela hiru urte, eta badirudi
sendatu egin dela. Jada ez du
HIESaren aurkako botikarik
hartzen eta egindako analisisie-
tan ez da birusaren aztarnarik
azaltzen.

<http://ttiki.com/21244> (Frantsesez)

Fusio nuklearra lortzeko proiektua moteldu du Europak

Europar 2011. urterako aurre-
kontuak aztertzen ari diren
honetan, ITER proiektuaren-
tzat eskatutako 1,4 milioi
euroko diru-gehigarria ukatu
dute. Proiektu horren bidez
fusio nuklearraren bidezko
energia lortu nahi da, alegia,
eguzkiak duenaren antzeko
energia.

<http://ttiki.com/21245> (Frantsesez)

Audifonoak hobetzen

Munduko biztanleen %10ek
baino gehiagok entzumen-ara-
zoak dituzte. Audifonoen
bidez pertsona ugari bizi-
kalitatea hobetu da, baina gailu
horiek muga askotxo dituzte;
adibidez, jende asko dagoen
leku zaratsuetan ia erabilezin
bihurtzen dira. Hori hobetu
nahian aurrerakuntzak egin
dira.

<http://ttiki.com/21247> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Tantai edo motz

EKAINGO ZULOKO aldarean zaldiak gurtzen zituen ehiztariak edo Praileaitzeko azti sakratuak ezagutu zituzten baso ikaragarriak nolakoak ote ziren? Hai-zeak kamustutako mendietako haitz gorriak eta itsa-soko uhinek zorrotutako labarrak besterik bistan uzten ez zituen lurraldearen soingaineko dotorea izango zen bai. Hosto itsaso eta hosto zero. Era guztietako zuhaitzak elkarren altzoan, bukaerarik gabeko segidan bata bestea aldamenekoaren babes itzal abaro.

Gero suak, aizkorak, arpanak, trontzak eta moto-zerrak etorri ziren eta akabo gure baso naturalak.

Euskal Herri osoan ba ote da kulturalki, gizakiok ukitu gabeko lur-muttur bakarren bat? Nekez topatu dugu. Nik behinik behin ez dut ezagutzen. Gure baso guztiak kulturalak dira, geuk landatutakoak, geuk eraitsitakoak, birlandatutakoak, bakandutakoak, inausitakoak, erretakoak...

Basoaren garai bateko garrantziaren neurria azaltzen du lan hauen tamaina ikaragarriak. Gutxienez azken 2.000 urteetako ekonomiaren oinarria basoa izan da: su-egurra, ikatza, bazka, fruituak, inaurkina, eraikuntza, ontzigitza, itsasontzigitza eta ibaiontzigitza... Energia, jaki eta materialetarako iturri izan da basoa. Diru iturri. Eta diruak dirua erakartzen omen du, odola erakartzen du. Borroka. Eta gizarteak borroka onargarria egin behar du, arautua, gure zurikeriaren neurrietara mugatua.

Borroka latzak izan ziren XVI-XVII. mendeetan. Basoaren emari nagusia zen zurak elkarren aurkako bi diru iturri zituen: ikatza eta itsasontziak. Industria indartsuena zen burdingintzarako energia zen ikatza eta erraz berritzen ziren baso adartsuak behar zituen, txarak eta zuhaitz motz edo mugarrotuen basoak. Ontzioletan, aldiz, zuhaitz lizarrak edo tantaia behar ziren. Buruz buru, bekoz beko, adarbegiz adarbegi, motz edo tantai erabat kontrajarriak.



WWW.SOLUCIONPOLITICA.COM

%87

1985 eta 2002 urteetan Suitzan egindako ikerketa batzuek larritzeko moduko datu beltza argitu zuten. Marrubiak ikertu zituzten. *Fragaria* generoko hibridoak dira marrubiak, eta haren osagaiak aztertu ziren. Hamazazpi urteko tartearekin hazitako marrubien arteko osagaien aldea izutzekoa da. Adibidez, %87 jaitsi da C bitamina eta %43 kaltzioa. Gero eta kalitate eskasagoa ahoratzen dugu.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxe: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Ocharcoaga 1961



BILBO, 1959. Urte amaieran Francisco Franco diktadoreak hiria bisitatu zuen eta inguruko mendi hegaletan Bizkaiko industriak erakarrirako etor-kinak txabola auzoetan pilatzen zirela ikusi zuen. Ez zen hura errejimenak eman behar zuen irudia eta, *caudillo*-aren aginduz, makineria frankista berehala abian jarri zen. 1960ko maiatzean zementuzko auzo moderno bat eraikitze lanak hasi ziren eta urtebete geroago 3.672 etxebizitza prest zeuden. Otxarkoaga ezerezetik sortu zen hilabete gutxian.

Diktadoreak egitasmoaren emaitza ikus zezan Bilbora beste bisita bat egin beharrik gabe, Etxebizitza Ministerioak film bat egiteko enkargua eman zion Jordi (orduan Jorge) Grau zuzendariari. Hamar minutu inguruko pelikula ez zen zine aretoetan estreinatu eta No-Doan ere ez zuten eman; Francorentzat soilik egina zen. *Ocharcoaga* filmak txabola auzoen miseriaren nahiz auzo berriaren erosotasun eta

zerbitzuen irudiak jaso zituen, testu propagandistiko lotsagabeaz lagunduta. Baina Franco biziki haserretu zen, eta irudi berriak erantsiarazi zituen.

Hala ere, Francorentzat bezala, egungo ikuslearentzat errejimena loriatzeko jatorrizko asmoa eta azkenean zuzendariak iradokitzen duen mezua ez datoz bat. Hasierako txabolen irudiak alaiak dira, biziak, bertakoak irribarrez agertzen dira, egoe- ra tamalgarrian bizi arren. Eta irudiak musika alaienez lagundu zituen Grauk. Otxarkoagako irudiak aldiz hotzak dira, bizigabeak. Zementua eta angelu zorrotzak dira nagusi eta musikak ere ezinegona eragiten du.

Hala, diktadoreari koipe emate hutsa behar zuena, sotilki eta maisuki, kontra-propaganda bihurtu zuen Jordi Grauk, filma ia 50 urtetan beste inork ikusi ez arren.

argia.com webgunean *Ocharcoaga* filma osorik duzu ikusgai.



Goiko bi argazkietan Jordi Grauren *Ocharcoaga* (1961) filmeko hasierako fotogramak ageri dira; behean, aldiz, filmaren bigarren zatiko irudi hotzak.

Arrastoak

Maskara erromatar bakana saldu dute enkantean

CROSBY GARRETT kaskoa brontzeko maskara erromatar balio-tsua da eta duela aste batzuk enkantean saldu zuten Londren. Pieza Cumbrian (Ingalaterra) aurkitu zuten, metal detektagailu baten laguntzaz, eta K.o. I. edo II. mendekoa da, datazioen arabera. Maskara erromatar ugari aurkitu izan dira baina, azken 250 urtetan, buru osoa estaltzen duten hiru besterik ez dituzte topatu, saldu berri den hau barne.

Horrenbestez, 2,3 libra esterlinaren truke, altxor bakana esku pribatuetan dago orain, aditu gehienen iritziz ondareak publikoa izan beharko lukeen arren.



WWW.ARTMARKETMONITOR.COM

Berriki enkantean saldu den maskara oso bakana da; halako hiru besterik ez dira aurkitu.



Diru eske Dublingo zubi batean. Azken bi hilabeteetan eskaleak izugarri ugaritu dira krisia dela-eta.

Irlandaren kiebira

Hamaika etxe huts, hamaika etxegabe

Azken hilabeteetan, Europako zenbait herrialde erreskatatu dituztela ikusi dugu, hala nola Grezia eta Irlanda. Eta badirudi 2011n beste herrialde batzuk ere erreskatatuko dituztela.

Portugal, Espainia, Belgika eta Italia izan daitezke herrialde horiek, besteak beste.

Zer da herrialde bat erreskatatzea eta zer ondorio ditu?

Testua eta argazkiak:

AMAIA ALVAREZ BERAESTEGI

NELSON (izena faltsua da) orain dela hiru hilabete joan zen Irlandara, lan bila, Tigre Zeltaren mirariaren atzetik. Dublinera ailegatu eta hilabete batera, ordea, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Europako Batasuna irla erreskatatu beharrean zeudela entzun zuen. Ez zuen gertatzen zena ondo ulertu, baina ez zuen halakorik

espero. Bosniarra da eta 26 urte ditu. Ingelesezt nola edo hala moldatzen dela-eta harro zen orain dela lau hilabete, zorionekoa sentitzen zen Dublinera joan ahal izateagatik.

Bizimodu oparoa espero zuen Nelsonek Irlandan. Ez zuen inolaz ere kalean eske ibiliko zenik pentsatu. Bazekien gauzak ez zirela samu-

rrak izanen, baina ez zuen imajinatu ere egin Dublingo Grafton kaleko Burger King-aren ondoan diru eske egonen zenik. Irlandako azken 25 urtetako negurik hotzenean eta oinutsik. Familiari ez dio egia esan, lan bila ari dela esan die eta lagun baten etxean egiten duela lo. "Dena azkarregi joan da".



Goian: jende ilarak Allied Irish Bank-eko Dublingo kutxazain batean dirua ateratzen, Gabonetako sasoia dela-eta. Banku horrek eta Bank of Ireland-ek utzitako zorrak ordaindu beharko dituzte irlandarrek osoki hurrengo urteetan. Behean: aterperik gabekoentzat diru bilketa. Katolizismoagatik-edo, Irlandan ohitura handia dago limosnak emateko, baina krisiak mundu guztia kolpatu duenez, ez da aski.

Politika eta ekonomia arloetako pertsona ospetsuak lau haizetara zabaltzen ari dira 2011. urtean European beste erreskate batzuk egingo direla. Besteak beste, Portugal, Espainia, Belgika eta Italia erreskata ditzakete. Irakurleek erreskateak zertan diren jakin dezaten, zenbait galdera egin dizkiogu geure buruari:

ZERGATIK ERRESKATATU BEHAR DA HERRIALDE BAT?

Herrialdeek, funtzionatzeko, nazioarteko merkatuen finantzazioa behar dute. Merkatu horiek interes handiak kobratzen dituzte finantziario horren trukean. Merkatu horiek susmatzen badute herrialde baten zorra handitu eta haren defizita izugarri igoko dela –alegia, ez duela zorra adostutako epeetan ordaintzerik izango–, alarma sirenak jotzen hasiko dira. Eta herrialde horrekin fidatzen ez direnez, askoz prima handiagoak eskatuko dizkiote, zorra birfinantzatzeko dirua uzteko; esaterako, Irlandari %9 gehiago eskatu zioten. Eta estatu batek ez badu bere zorra birfinantzatzea lortzen, behea joko du.

BEHEA JOTZEN UZTEN AL ZAIE HERRIALDEEI?

Orain arte, ez. Irlandak, Greziak edo erreskatatutako beste herrialderen batek behea jotzen badu, herrialde hori eta bertakoak ez dira kaltetu bakarrak izango. Izan ere, zorra birfinantzatzeko dirurik ez badu lortzen, estatu horrek ezin izango ditu zerbitzu publikoak ordaindu, ez eta hartzekodunei ordaindu ere. Eta gainera, egoera hori inguruko herrialdeetara heda daiteke. Horren ondorioz, herrialde horietako zorraren kostua handitu egingo da. Horixe ari da gertatzen Espainiako Estatuan, Grezia eta Irlandaren erreskateen ondorioz.

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Kalean eske zazpi ordu egon ondoren, gaua Pearse Street kaleko ostatu publikoan igarotzen du: “Hori guztia, egunero zortzi euro baino gutxiago jasotzeko”. Aterpeak gainezka dauden arren, gauetan etxegabeak kalean ikustea oso arrunta da Dublinen. Askok nahiago dute kalea ostatuak baino, droga eta istilu anitz izaten baitira aterpeetan. *Homeless* agentziak azaroko gau batean egindako bilaketan 70 pertsona aurkitu zituen kalean, aurreko urtean data berean baino 20 gehiago. Eta, osotara, Dublingo metro-

poli gunek milioi eta erdi biztanle inguru besterik ez ditu. Ikerketa horren arabera, irlandar etxegabeen kopurua %20 handitu zen iaz 2009 urtearekiko. Halere, oro har, Bosniatik, Errumaniatik eta Poloniatik joandakoak dira gehienak. *Boom* ekonomikoarekin liluraturik ailegatatutakoak guztiak.

Urte luze honetan Irlandak kiebraz ari da. Finantza sistemak porrot egin eta adreiluaren burbulla eztanda egin du. Hori dela eta, 100.000 etxebizitza daude gaur egun hutsik. Horietako asko obra

Zer da herrialde bat erreskatatzea Europan?

NOLA EGITEN DIRA ERRESKATEAK?

Herrialde bat erreskatatzean, bere zorra birfinantzatzeko behar duen finantzazioa ematen zaio. Hau da, ez badu finantza-zio hori merkatuetan lortzen, FMLren eta Europar Batasunaren maileguei esker lor dezake. 2010eko apiriletik, 750.000 milioi euroko funtsa dago Euroguneko edozein herrialderen eskura. Zenbateko horretatik, Europako Batzordeak 60.000 milioi euro eman ditu, FMLk 250.000 milioi euro, eta gainerako 440.000 milioi euroak estatu kideen bermedun jaulkipen baten bidez eman dira. Funts horren zenbatekoa handitu egin daiteke, 1,5 bilioi eurora arte, etorkizunean erreskate gehiago egin behar bada.

ZEINEK ORDAINTZEN DITU ERRESKATEAK?

Euroguneko herrialdeek jartzen dute dirua, gerora estutasunean dauden herrialdeei uzteko. Herrialde bakoitzaren ekarpena haren BPGk Eurogunean duen garrantziaren arabera kalkulatu da. Epe luzean, kostuak nulua izan beharko luke ekarpen hori egiten duten herrialdeentzat. Are gehiago, gerta daiteke mozkinak izatea, mailegu horietatik interesak kobratzen baitira (%5ekoak, gutxienez). Baina herrialde zordunak interes horiek ez ordaintzeko arriskua ere badago, eta horren ondorioz, laguntza ematen duten herrialdeetako defizitak gora egingo luke.

ZER ONDORIO DITU ERRESKATEAK HERRITARRENTZAT?

Erreskatatutako herrialdeek mugatua dute beren subiranotasuna. Hartzekodunen eskuetan daude; hau da, dirua utzi

dieten herrialde edo merkatuen eskuetan. Hartzekodunek bermeak eskatuko dizkiote erreskatatutako herrialdeari, utzitako dirua epe jakinetan itzul dezan. Horrenbestez, oso etxeko lan zorrotzak jarriko dizkiote: gastuak murriztera eta zergak gehitzera bultzatuko dute. Eta gainera, egunez egun kontrolatuko dizkiote kontuak. Zorra itzuli ahal izateko, erreskatatutako herrialdeak eskubide eta laguntza sozialak murriztu beharko ditu; besteak beste, lan erreformak egin, enplegu publikoa suntsitu, soldat izoztu, pentsioak erreformatu eta zergak gehitu beharko ditu. Jakina, beti bezala, langileek eta herri xeheak jasanango dituzte ondorio horiek.

ESPAINIAKO ESTATUA ERRESKATATUKO AL DUTE?

Orain arte, nazioarteko foroetan edo hedabideetan ez da aipatu Frantziako Estatuak erreskatea behar duenik. Hala ere, esan izan da Espainiako Estatuak, Portugal, Belgika eta Italia izango direla erreskatatuko beharreko hurrengo herrialdeak Europan, eta hori 2011. urteko lehen hilabeteetan gertatuko dela. Espainiako Estatuaren kasuan, kontuan izan behar da 2010. urtearen amaieran Espainiako zor publikoa haren BPGren %70ekoa zela, inguruko herrialdeetakoa baino askoz txikiagoa. Hala ere, hau da larriena: zor orokorra, publikoa eta pribatua —enpresa finantzarioak eta ez-finantzarioak, etxeak...—, 4 bilioi eurokoa da.

Nazioarteko hainbat instantzia ekonomiko eta politikotatik, Espainiako Estatuak erreskatea beharko duela esaten dute. Dena den, zenbait politikarik eta analista ekonomikok ez dute uste Espai-

nia erreskatatu behar denik, baina, haien iritziz, erreforma batzuk egin beharko dira. Esaterako, Angel Laborda analista ekonomikoak *El País* egunkarian adierazi du: “Espainiak ez du erreskaterik behar, baina erreformak egitea, bai”. Bere buruari galdetzen dio ea “Espainiak bazkideen laguntza behar ote duen, Greziak eta Irlandak bezala, bere betebeharrin- tarioei aurre egiterik ez izateagatik”.

Haren iritziz, bi sektoretan da Espainiako zorra handiagoa Eurogunekoa baino: etxeen eta enpresa ez-finantzarioen sektoreetan. Hala ere, eransten duenez, beste bi sektoreek —erakunde finantzarioak eta sektore publikoa— sortzen dute errezelo handiena merkatu finantzarioetan: “Espainiako zorra txikiagoa da Eurogunekoa, Estatu Batuetakoa eta Japoniakoa baino”. Bada beste adierazle garrantzitsu bat: zor publikoaren interes karga. Labordaren ustez, “Espainiari BPGren %1,8 kostatu zitzaion 2009an, portzentajezko puntu bat gutxiago Euroguneari, Estatu Batuei eta Japoniari baino. Hortaz, ez dirudi Espainia egoera finantzario okerragoan dagoenik Eurogune erdialdeko herrialdeak baino”. Haren aburuz, “Krisi ekonomikoa eta epe ertaineko hazkunde itxaropen kaskarrak dira Espainiaren arazoa, inbertitzaileen arabera horrek eragotz baitzezake Espainiak bere betebeharrin finantzarioak betetzea”. Hori dela eta, benetako erreformak egin behar dira, haren iritziz, luzatu gabe, hazkunde potentziala dinamizatzeko. Denborak esango du aurreikuspen horiek zuzenak ala okerrak diren.

Daniel Udalaiz

amaitu gabe ere bai. Egoerak paradoxa ugari ikusarazi ditu: etxe fantasmak edonon izanik ere, irlako hiriburuan 70 bat lagunek egiten dute lo egunero kalean.

Bosniar gaztearen kasua hamaika bider ikusten ahal da Dublingo kaleetan. Bost metro bakoitzeko daude eskaleak. Bereziki kutxazain automatikoen alboan, kafea edateko kartoizko edalontzietan txanponen soinua noiz entzungo zain. Ilara amaigabeak ikusten ahal dira hiriguneko bankuetan; Grafton eta O’Connell giro biziko kale nagusie-

tan, bereziki. Eguberri sasoia izanik, jendeak etenik gabe ateratzen du dirua Bank of Ireland edo Allied Irish Bank-etako kutxazainetatik. Eta, hain justu, banku horien zorrak eragin du irlaren *crack*-a.

Dublinen eskaleen fenomeno berria ez bada ere, azken urtean eta batik bat azken bi hilabeteetan ikaragarri handitu da. Halaxe dio Dublingo misio kristauak hiriko zentroan duen Light House etxeko koordinatzaile Rocheanne Noble hegoafrikarrak: “Azken bi hilabeteetan hogeit bat aurpegi berri ikusi

ditut gurean, izugarria da, eta hemendik aurrera geroz eta gehiago espero ditugu”.

Pobreziarekin batera, karitatea ere handitu egin da Irlandan. Katolizismoari indartsu lotuta izateagatik-edo, beste herrialde batzuetan baino ohitura handiagoa dute limosnak emateko. Eskaleez aparte, Focus Ireland edo Simon Communities erakundeetako boluntarioak kale guztietan daude diru eske. Baina elkarte horiek ezin diote arazoari aurre egin, Nobleren irudiko. “Jendeak laguntzen du, bai, baina ez

da aski. Orain, gainera, krisiak mundu guztia kolpatu du. Beraiek jateko ez badute, nola eman behar dute dirua etxegabeentzako? Gobernuak arazoa errotik konpondu beharko luke, baina oraingoz diru laguntza gehiago eman beharko lieke eskaleak hartzen dituzten etxei”.

Klase ertainaren desagertzea

Izan ere, etxegabeak ez dira Irlandako finantza krisia jasaten duten bakarrak. Kaleetan dirua eskatzen dieten horiei ere etorkizun latza datorkie. Klase ertain zabala du Irlandak, 1990eko hamarkadako neoliberalismoak ekarri zuen ekonomiaren indartzearekin batera sendotutako klasea. Eta multzo hori izanen da preseski bankuen erreskatea gehien sufrituko duena. Horrela deritzo dio Michael Senelli dublindarrak: “90eko hamarkada baino lehen gure egoera ekonomikoa zinez latza zen. Azken 20 urteetan ondo bizitzea lortu dugu, Irlanda ziztu bizian hazi zen. Zoriontasun horrek, baina, gutxi iraun digu”.

Klase ertain hori dagoeneko desagertu dela uste du batek baino gehiagok. “Azken urtean langabezia handitu da (gaur egun %14,1 da tasa) eta orain arte izan ditugun luxu txikiak jadanik kendu ditugu. Nik, adibidez, orain dela lau bat hilabete saldu nuen autoa. Autoa edukitzea luxu bat bilakatuko da aurki”, gehitu du Sean Smith 30 urteko dublindarrak.

Izan ere, datozen lau urtetan, Europako Batasunak eta NDFk utzitako dirua ordaintzeko, Irlandak murrizketa publiko latzak eta zerga igoera handiak egingen ditu. Austeritate plana deitu dutena aplikatuko du. Hala, nazioarteko erakundeen esanetara eskatutako erreskatearen ordainketa garesti aterako zaio Irlandari. Hasteko, 85.000 milioi euroak lortzeko, Irlandako Parlamentuak (Dáil Éireann) 6.000 milioiko murrizketa egin du 2011ko aurrekontuetan. Batez ere, gizarte-ongizatea zigortuko dute neurriok, familiek eta langabetuek jasotzen dituzten diru-laguntzak %5 inguru murriztuko baitira. Langabezia eta bizitzaren garestitzea dela eta, dato-



Nelson, Dublinera lan bila joandako 26 urteko bosniarra. Eskean ibili beharrean aurkitu da, Irlandako egoerak harrapatuta.

zen lau urteotan 100.000 irlandar ingururen emigrazioa espero da. Guztira, Irlandako Errepublikak lau milioi eta erdi biztanle baino ez ditu.

Orain arte mobilizazio entzute-tsu asko egin ez bada ere, geroz eta ozenago entzuten ari dira erreskatearen kontrako ahotsak. Datozen hilabeteetan ikusiko da egoerak atzera bueltarik baduen ala ez. Zaila ikusten dute aditu nahiz politikariek tortilari buelta ematea; halere, San

Patrick (martxoak 17) eguna baino lehen egingen diren hauteskundeetan egonen da giltza.

Inkesta ugari ematen ari dira azken asteotan ezagutzera eta, ondorioztatzen ari direnez, bankuen erreskatea irudikatu duten bi gizonak, Brian Cowen lehen ministroa eta Brian Lenihan finantza ministroa, gogor zigortuko dituzte hautesleek. Fiannna Fáil eta Alderdi Berdeak osatutako gobernuari hilabete gutxi batzuk falta zaizkio bukatzeko eta laboristek dituzte boletoko guztiak hurrengo gobernu gidatzeko. Laboristek Sinn Féinnekin eta independenteeekin koalizioa osatzeko aukera ere mahai gainean dago. Dena delakoa, hauteskunde kanpainen ardatza finantza erreskatea berriz ere negoziatzeko aukera edukitzea izanen da. ■

Langabezia eta bizitzaren garestitzea dela eta, datozen lau urteotan 100.000 irlandar ingururen emigrazioa espero da



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**

Joxpi Irastortza

«Lantokia euskalduntzeko ez da aski hiru urteko plana»

Enpresetan euskara planak diseinatzen hasi zen duela urte batzuk, diseinatzea zer zen ere ez zekiten garaian. Urtetako esperientziaren ondoren doktorego tesia idatzi du, langileek euskararekiko duten hasierako jarrera eta praktikan duten portaeraren arteko aldeak aztertuz.

PABLO SUBERBIOLA
ONINTZA IRURETA AZKUNE
Argazkia: Dani Blanco

JOXPI IRASTORTZA (Lazkao, Gipuzkoa, 1961) Emun-en (Lana Euskalduntzeko Kooperatiba) ari da lanean hamaika urtez geroztik. Euskara planak txertatzen hasi zireneko urteak gogoan, termino ugari, hala nola, motibazioa eta jarrera, nola nahasten zituzten du akorduan. Enpresa bateko adibidea kontatu digu: Langileei galdetegia pasa zieten jakiteko ea abian jarriko zuten euskara planarekin bat egiten zuten ala ez. %95ak baietz erantzun zuen. Hala pentsatu zuen Irastortzak: “Hemen eginda zegok, horrelako jarrera baldin badago”. Euskara plana abian jarri eta aste gutxira konturatu ziren zerbaitek huts egiten zuela; jarrera ona bai, baina ez zen euskararen erabileran islatzen. Motibazioa, hitz magikoa, etorri zitzairen burura eta hala hasi ziren bidea egiten. Emaizta teorikoa, alegia, doktorego tesia, 2010eko uztailan aurkeztu zuen lazkaotarrak: *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzetik helburuak lortzera*.

Tesiko ondorioetako bat da hau: gauza bat da euskara planaren aurrean langileek erakusten duten jarrera (ona), eta bestea, zeregin konkretuetan euskaraz aritzea.

Badago adierazle oso-oso esanguratsua: terminologia. Orain ehun urte, baserri mundua gailentzen zen garaian, lanabesak inongo arazorik



“Langilea kontzientziaduna bada aurrera egingo du, noski, baina langileen gehiengoa ez da kontzientziaduna, gizartean bezalaxe”.

gabe izendatzen ziren euskaraz. Halako batean jo zuen atea industrializazioak eta ordutik tresna horiek erdaraz bataiatzen joan dira. Ehun urteko tradizioa aldatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Ohiturak aldatzea oso-oso konplexua da, motibazio egiturak ere oso konplexuak dira. Hau ez da guk hasieran saltzen genuen bezala, hiru urteko plana. Nik bederatzi urte egin nituen enpresa berean eta beste teknikari batek jarraitzen du orain.

Garai bateko mitoaren arabera, ikastolako haurrak hazi ahala euskararen errealitatearen aldaketa neurri berekoa izango zen. Ikusi da ez dela neurri berean aldatu, eta askok espero baino neurri txikiagotan. Lan munduan gauza bera gertatu al da?

Enpresetara saltzera joaten ginean puntuetako bat horixe zen: belaunaldi berri hauek aldatuko dute enpresako egoera linguistikoa. Hori ez da horrela.

Norbait euskara aldarrikatzen hasten bada, langileen eta baita zuzendari-tzen jarrera ere bada esatea, "bada, nahi badute egin dezatela!".

Sumatzen da. Adibidez, kanpotik datorren eta bazkidea ere ez den langileak nola aldatuko du errealitatea enpresan? Uholdea ez da kanpotik sartzen, eta sartzen bada ere, ez dauka pisurik, nekez aldatuko du. Indarrak barruan egon behar du. Belaunaldi berriak euskaraz ikasita datoz lan mundura, komunikatzeko eragozpenik ez daukate... baina nire galdera da: Euskarari eta euskal kulturari buruz hitz egiten da ikastetxeetan? Hortaz hezten da? Horrek izugarritzko eragina luke.

Kontzientziaz ari al zara?

Bai, edo nahi baldin bada pentsamenduaren garapenaz. Gauza batean burua garatuta baldin badaukagu gure bihotza ukituko du, eta gure bihotza ukituta badago, pauso batzuk emanaraziko dizkigu. Eskolatik lan mundura kontzientzia mehearekin datoz. Nahiz eta izugarritzko kontzientziarekin etorri seguru asko harri kozkor handi batekin egingo dute topo, baina agian hori bideratzeko armak edukiko dituzte. Baina hizkuntza komunikatzeko tresnatzat bakarrik duenak... Euskaldunak lan mundura sartzeak ez du esan nahi ezinbestean aldaketa eragingo dutenik.

Tesiaren beste ondorioetako bat: enpresak helburuak finkatu ditu, eta emaitzak ez dira berdinak kanpotik jarraipena eginda ala ez eginda.

Bi bide konparatu ditugu ikerketan: pertsuasioaren zeharkako bidea eta zuzeneko edo erdikoa. Egia da kanpo eraginarekin kanpo eraginik gabe baino emaitza hobeak lortzen direla. Hau da, intentzioa edo konpromiso pertsonala azaltzea bada zer baita, baina nahikoa al da? Den-

borarekin konturatu ginen ez dela nahikoa. Jarreraren eltzea pizteko sua behar da eta su hori intentzioa edo konpromisoa da. Sua eman diezaioket eltzeari, baina kasurik egiten ez badiot erre egingo da, edo auskalo zer gertatuko zaion. Tesian defendatu dudana bidea bestea da, konpromisoa ondo dago, baina bultzatzen dezagun euskarari buruzko hausnarketa langileen artean. Lehenengo bidearekin emaitza onak lortu ditugu, baina ibilbide motza dauka. Langilea kontzientziaduna bada aurrera egingo du, noski, baina langileen gehiengoa ez da kontzientziaduna, gizartean bezalaxe. Bernardo Atxagak ondo asko bereiztu zituen hiru tipologiak, patetikoak, sinpatikoak eta antipatikoak —euskaraz bizi nahi duten militanteak,

"Gogoeta saioa hori da: bakoitzak hizkuntzarekiko dituen usteak, iritziak, ideiak azaltzeko gunea. Hori da guk planteatzen dugun minimoa"

aldeko jarrera erakusten badute ere euskaraz bizitzeko ahaleginik egiten ez dutenak, eta euskararen kontrako jarrera dutenak—. Askotan patetiko-en babesa bilatzen dugu, baina nola tira besteengandik? Bada, gutxien gutxienez, hurreratuz, euskararen inguruan natural eta goxo hitz egin. Paradoxikoa dirudi: euskarari buruz hitz egin, gero euskaraz hitz egin ahal izateko.

Euskaldunetaz ari zara, ez erdaldunetaz.

Bai. Irratian entzun nuen behin: euskarari buruz hausnarketa gutxiago eta hitz egin gehiago. Jakina, hori da nahi duguna, baina ez da gertatzen dena. Gure emaitzetan ikusi dugu gogoeta egiten dutenek, egi-

ten ez dutenek baino emaitza hobeak lortzen dituztela. Eragilea denak bere bidea egingo du, baina zenbat eragile aurki ditzakegu enpresetan? Euskaldunok motorra izan beharko genuke enpresetan, baina nekez egiten dugu lan hori. Momentuz masa hori erakarri beharko genuke.

Euskalduna zenbateraino ohitu da beldurrean bizitzen? hau da: "Lanean euskara egiten badut nire lana kalte-tu dezake; horrek ez badaki euskaraz eta hala egiten badiot deseroso sentituko da..."

Ez dakit beldurrak diren, lotsak... Horrelako kontuak langileekin egin-dako gogoeta saioetan mahai gainean jartzen dira. Gogoeta saioa hori da: bakoitzak hizkuntzarekiko dituen usteak, iritziak, ideiak azaltzeko gunea. Hori da guk planteatzen dugun minimoa. Hitz egiten ez baldin bada, alferrik da.

Duela urtebete inguru enpresa batean erdaldunekin ordubeteko bost saio egiteko asmoa genuen. Erdaldun "euskaltzaleak" ziren. Hirugarren saioa uztailean egin genuen. Enpresak euskara ikastaroak eskaintzen zituen, baina azken lau-bost urteetan inork ez zuen izenik eman, presiorik ez zuten sentitzen. Irailean, matrikulazio garaian, guk ezer esan gabe, gogoeta taldean ari ziren zortzi lagunetatik zazpi euskara ikasten hasi ziren. Zerk eragin zien langile haiei pauso hori ematea? Faktorerik behinena hori irudi zitzaidan: haiengana hurbiltzea, sentimenduak eta ezagutzak konpartitzeko aukera ematea.

Zer ikertuko zenuke hurrengo?

Nire ikerketa guztiz kuantitatiboa izan da. Kualitatiboa egingo nuke hurrengo, alegia, gogoeta saioak egin eta langileen iritziak, jarrerak, bizitza historiak jaso. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala



Euskaltegientzako jaitsiera %1,96koa

DIRU-LAGUNTZEN %12,6ko jaitsiera zuen aurreikusia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Euskaltegiak urduri zeuden, datuaren zain, itxura onik ez baitzuen. Azkenean, Kultura Sailak adierazi du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta HABEren bidez 11.280.350 euroko diru-laguntza emango diela euskaltegiei 2010-2011 ikasturtean. Iazkoarekin alderatuta jaitsiera %1,96koa da.

100.000 euro Trebiñurako

EUSKO JAURLARITZAK 50.000 euro-

ko diru-laguntza emango dio Trebiñuko Udalari eta beste hainbeste Argantzongoari. Erabakia Trebiñuko administrazioarekin 2003an sinatutako lankidetz hitzarmenaren baitan kokatu du Eusko Jaurlaritzak.

Kantu ahantziak liburuan

OXTIKENEKOAK eta Hatsa elkarteek argitaratu dute XIX. mendeko *kantu ahantziak* izeneko abesti zaharren liburua. 110 kantu bildu dituzte eta 1910. urtean koadernoan kantak idazten hasi zen Marie Jeanne Arribilagaren kantutegian oinarrituta dago lana.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Babcock-eko pribatizazioak ikertu beharraz

Ezkerraldean dagoen Babcock-en (BW) etorkizuna arriskuan dago. 2011ko lehen hilabeteok, maiatza arte, erabakigarriak izango dira. Arrazoi horregatik, langileak -5.200 lagun 1973an eta 392 gaur egun-, euren lanpostuen alde mobilizatzen ari dira. Azken mobilizazioa Bilbon izan zen, Eguberri jaietan. Oraitxe ezagutu berri dute BWren jabe den Austrian Energy (AE) elkartearen hondoratzea. Langileak Eusko Jaurlaritzaren aurrean ere manifestatu dira, Gasteizen, eta EAJrengana jo dute, Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatearen aurrean bitartekari egin dezan. Egoera ez bada argitzen, mobilizazio gehiago iragarri dituzte.

BW ia mende bateko enpresa da, 1918an sortu zen, modu pribatuan. Ordainketak eten eta esku publikoetara igaro zen gero, eta ondoren, birritan pribatizatu izan da, gaur arte. Bere azken jabeak Borsig alemaniarra eta Austrian Energy (AE, lehengo ATB) austriarra izan dira. 2003tik BWak 1.500 milioi euroko laguntza publikoa jaso du. 1978an konfiskatu eta 1980an nazionalizatu izan zenetik 3.000 milioi eurotik gora izan liteke kutxa publikoetatik enpresa honentzako irten den dirua. Ustelkeria eta irregulartasun susmoak etengabe izan dira BWetik pasa diren pribatizazio arduradunen inguruan. Enpresa pribatuek ia doan erosi zuten BW, eta gainera, laguntza publiko milioioidunak jaso zituzten. Lantegiari bultzada berria emateko diseinatu ziren industria eta inbertsio planak ez dira bete. Eta abandonatua izateko zorian denean -orain AEk egingo duen gisan- euren jatorrizko jabeek hamar nabe saldu nahi dizkie oraingo jabeak; lehen doan jaso zituen. Egoera honek ikerketa zorrotza eta sakona eskatzen du euskal eta espainiar legebiltzarren aldetik, diru publiko asko baitago jokoan.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Martin Rezolak *Tiraka* blogean esanak: “Gaur goizean heldu zait Olentzeroren opariaren berri. Telefonoz. Gutxi gorabehera honela:

–Bai, esan?
–Buenos días, Martin Rezola?
–Bai, ni naiz. Nor da?
–Hola. Tú tomaste parte en el sorteo de la campaña ‘Saca tu bici’...
–Bai, gogoratzen naiz.
–Pues has ganado el premio. Unas alforjas para la bici.
–Baina nondik deitzen duzu?
–De la empresa XXXX, que colabora con el Ayuntamiento.
–Aizu, zuk euskaraz ez dakizu?
–Asko ez, baina saiatuko naiz.
–Eta nik eskertzen dizut saiatzea. Eta hortik aurrera euskaraz egin dugu, inolako arazorik gabe. Ez dakit ze etiketa jarri elkarritzetari: elebitasun pasiboa, gogorkeria, txiripa hutsa, salbuespena”.

Erramun Osak *Deian* esanak:

“Euskarak hizkuntza zaurgarrien artean jarraitzen du; galizierari eta katalan hizkuntzei dagokienez, aldiz, UNESCO erakundeak arriskuan diren hizkuntzen zerrendatik kendu ditu. Horrek euskararen kasuan aurrerapausorik ez dugula eman adierazi nahi du? Ingurura begiratzea besterik ez da behar euskararen egoerak hobera
–batzuek nahiko luketena baino gutxiago, beste batzuek nahiko luketena baino gehiago eta gehien-go zabal batek uste genuena baino askoz gehiago– egin duela konturatze”.

Bartomeu Melià *Lliteres*, urte luzez Hego Amerikan bizi den hizkuntzalari mallorkarrak *diariodemallorca.es-en* esanak: “Nola hitz egiten dute mallorkarra senegaldarrek eta marokoarrek? *Mallorkinadak* eta *kastellanadak* gure irlan, askotan, gure hizkuntzarentzako gatza dira eta ez dago horregatik asalatu beharrik”.

Abiada hartzen hasteko

POBREZIA ERLATIBOA (Wikipedia-ren arabera): “Garapen bidean dagoen gizarte batean, adibidez, bizitzeko ‘beharrezko’ produktuak janaria eta jantzi batzuk besterik ez dira; garatutako herrialdeetan, berriz, ‘beharrezko’ gauzen artean hilean behin ateratzea edo Gabonetako opariak daude. Bizitzeko behar denaren kontzeptua, eta ondorioz pobrezia kontzeptu hau, erlatibo da, bizi garen gizartearen arabera”.

Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) arabera, bost pertsonatik bat bizi da egoera horretan, %20tik gora. EAEn kopurua %9,4koa da eta Nafarroan %7,4koa. Baina ezaguna da egungo egoera okerragoa dela, INEren inkesta hau 2009an egin baitzen, eta 2008ko diru-sarrerekin. Denok dakigu, gizarteko eremu zabalentzat, 2008tik ona bizimaila biziki kaskartu dela. Ez dago zalan-tzarik, hemendik urtebete edo bira, oraingo diru sarrerek behera egingo dute jende askorentzat. Oraintsu, adibidez, iraupen luzeko milioi erdi langabetu 425 euroko laguntzarik gabe utzi du Espainiako Gobernuak. Hego Euskal Herriko pobrezia erlatiboaren datuak Estatu osoko onenak dira, baina hauek ere handituz jarraituko dute, egoera ekonomiko-sozialak okerrera jarraituko duelako.

Norbera ekonomialaria izan gabe akaso ausarta da aurrera begirako halako aurreikuspen gaiztoak egiten aritea, baina bizi diren garaiekin eta adierazle ekonomiko eta politikoak elkar gurutzatuz, ausartagoa aurreikuspen onak egitea da, baita ekonomialaria izanda ere.

Kontua da egoerari aurre egin nahian, gure gobernuak errezeta neoliberalekin ase nahi dituztela finantza merkatuak eta sakrifizioaren aldarean jartzen ari direla ongizate gizartearen zutoin sakratuetako batzuk. Noiz arte? Hor dago gakoa, inork ez dakiela zenbateko sakrifizioa



beharko duten diruaren jainkoek. Istilu eta protesta ugariaren ondoren, Frantzia udazkenean onartu zen erretreten erreforma. Espainian hila-ren bukaera onartuko da, nekez pentsa baitaiteke gizarte mailan dagoen mobilizazio ahalmenarekin PSOEren erreforma berri hau gerarazi daitekeenik. Orain arteko lan erreformaren bidetik, EAJK bere abstentzioarekin –edo onarpenarekin– aurrerabidea emango dio eta listo. Eta horrexegatik, hain zuzen, 27ko greba orokorrerako deialdia zentzuz betea da, jakinik tren hori gerarazteko baldintzarik ez dagoela, entzun dadila protesta ahalik eta ozenen eta balio dezala krisiaz hitz egiteko, nola iritsi garen honaino finantza kapitalaren aginduz, eta nola ez dagoen irtenbide duinik bide beretik. Denak adierazten du garai latzak datozela eta horiek klabe askoz sakonagoekin

Oraindik ez da gizarteratu energiaren krisia nola kateatuko zaion egun bizi dugun krisiari, baina hori ere badator edo gurean da jada

bideratu beharko dira, eta protestek balio behar dute baita ere norabide berri hori elikatzeke. Elkartasuna, banaketa, kontsumo aldaketa, des-hazkundera... horiek dira bultzatu beharreko uholde berriak. Eta batez ere behingoz lortzeko *desarrollismo*-ra bideratzen den diruaren zatirik handiena ikerketara bidera dadila, hori bai, ikerketa lerroaren oinarria aldatuz: “ea gutxiagorekin nola hobeto bizi”, hori da mendebaldeko gizarte eredu honek bideratzeko duen ikasgairik nagusia.

Gero eta gehiago entzuten da petrolioaren gailurraren gaia, eta apurka joango da zehaztuz gainera. Oraindik ez da gizarteratu energiaren krisia nola kateatuko zaion egun bizi dugun krisiari, baina hori ere badator edo gurean da jada. Horregatik, 27ko greban ezin gara pentsioei begira bakarrik geratu, eredu oso bat da dantzan dagoena... Marrazoei norantz tiratuko duten garbi dago. Justizia soziala, banaketa, elkartasuna, desazkundera eta oreka ekologikoan sinesten dugunok beste norabidean egin beharko dugu. Ez dago beste erremediorik. Zer hobe urtea egiatzko bizitza ariketekin has-tea baino?

PELLO ZUBIRIA

Argentinan pobreak pobreagoen kontra ostikoka

Udazkenean bortizkeriazko heriotzak ugaritu dira Argentinan, Buenos Airesen bertan bezala urrutiko probintzietan. Polizia bakarraz gain, hilak militante politikoak, indigenak edo okupa hiritarrak dira. Erasotzaileetan nahastu dira poliziak, sindikalistak, sikarioak, ultraeskuindarrak... eta beste pobre batzuk.

MARTIN CAPARROSEK, *Una Luna* liburuan munduko gaurko migrazioen kronika txit bizia idatzi duenak, Buenos Aireseko gertakizunez galdetuta zera erantzun berri dio kazetari bati: “Lazgarriena izan da ikustea pobreak borrokan –makilaz, balaz, suz– txit pobreen kontra, eta Estatuaren destaina, agintariak nahiago zutelako ez esku hartzea, gero arerioak errudun egiteko”.

Europaraino ez da iritsi irudi gehiago Buenos Airesko Villa Soldati parkean gertatutako liskarrenak baino. Hala ere, asko dira larrialdi soziala salatzen ari direnak. Adolfo Perez Esquivel bakearen Nobel sari-dunak *Alainet* gunean *Xenofobia, discriminación y genocidio silencioso* bataiatu du Argentinan gertatzen dena. Alcira Argumedo soziologo ezkertiarrek testuinguruan kokatu ditu gertakizunak *Argentina: muertes simbólicas* analisis; gaztelaniaz *Sin Permiso* gunean irakur daiteke osorik.

Urriaren 20an Unión Ferroviaria sindikatuko gorilek Mariano Ferreyra 23 urteko militante komunista hil zuten eta zazpi haurren ama den Elsa Rodríguez 56 urtekoa koma egoeran utzi. Buenos Airesko Avellaneda geltokitik gertu jazo zen. Liskarrak lehertu ziren trenbideetako azpikontratetan ari diren jendeek greba deitu zutenean, eta greba lehertzera sindikatu ofizialistak

argentinarek *patota* deitzen duten sesiante jendea bidali zutenean.

Eredu neoliberalak Argentinako langileen artean ere pikardia galantak egin ditu urteotan. Hasteko, 18 eta 29 urte arteko langileen hiru laurdenak edo lanik gabe daude edo beltzean ari dira edo azpikontratatuak, inolako babes sozialik gabe.

Prekarietatezko baldintzen kontra jazarri diren gazteetako bat zen Mariano Ferreyra. Irakasle baten semea, oso mutikotatik tailer mekanikoetan ari zen lanean baina Historia ikasketak egiten ere hasia zen; musikan ere aritzen omen zen, organoa jotzen. Partido Obreroko militantea zen.

Urrian bertan, Misiones probintzian bestelako heriotza batzuen berri jakin zen. Apóstoles hirian Hector Díaz bi urteko umea eta Montecarlon Milagros Benitez 15 hilabetekoa gosez hil ziren. Nabarmenenak izanagatik ez dira izan bakarrik. Lekuko agintariak aitor-tzen dute haurren desnutrizioa aski zabalduta dagoela. Eskualde hartan nekazaritza industrialetan inbertsioak egin dituzten enpresa buruek hilabete gutxi batzuetan kontratatzen dituzte lurrik gabeko baserri-tarrak, gainerakoan ez lanik eta ez dirurik ez da.

Azaroaren 16an zabaldu zen 7 urteko Ezequiel Ferreira hil zela oilategi

Bi argazkiok irudikatu lezakete Argentinan pobreziaren inguruan bizi den eztabaida giroa. Ezkerrekoa Nueva Patria mugimen-duarena da eta etorkinen kontrako matxindara dei egiten die herritarrei: dagoeneko immigrante gehiegi omen dago Argentinan, horiek ekarri omen dituzte segurtasun falta eta delinkuentzia. Ageri da Argentina herrialde aski garatua dela, AEBetan eta Europa osoan gertatzen den moduan, pentsamolde xenofoboa nagusiki eskuin muturreko taldeek bazkatzen dute, baina gero hura hedatu ahala sistema barruko alderdi “burutsuek” berenganatzen dute. Eskuineko irudikoa Tendencia Piquetera Revolucionaria talde trotskistaren kartela da. Abenduaren 17rako aldarrikapenezko bilkurarako deialdia egiten du, iragarritzaz hizlarien artean egongo dela Elizabeth Ovidio Villa Soldati auzoko Indoamericano parkean hil zuten Juan Castañeta Quisperen alarguna.

industrial bateko toxikoek eragindako minbiziagatik. Ferreiratarrek lortu zuten, ustez, Misionesko miseriari ihes egitea, Buenos Aires probintziako Nuestra Huella granja erraldoiak kontratatu zituztenean.

Heldu bezain laster ohartu ziren miseria handiagoan zituztela ugazabek: zorrak kitatu eta egunero mantendu ahal izateko, aita eta amaz gain haurrek ere lan egin beharra zeukaten oiloen artean. Horrela ari omen dira ehunka familia 70 granjatan, senide guztiak zepoan harrapatuta, ihes egin ezinik, inoren babesik gabe. Hamabi urte gabeko milioi eta erdi haur ari da lanean gaur egun Argentinan, laborantzako korporazio handien eta industriaren morroi. Charles Dickens piztu baledi...

Babesik gabe milioika jende xehe

Azaroaren 23an, Formosa probintzian, Celía familiako zaindari pribatuek eta poliziek indarka nahi izan zuten ireki hango errepede bat. Gobernadoreak lurrak kendu zizkien Qom edo Toba jendeari, uni-bertsitatea eta polizientzako etxeak eraikitzeko. Tobatarrek errepedean trafikoa eten zuten. Errepideko borroketan polizia bat hil zuten bertakoek. Mendekuz, Roberto Lopez eta Sixto Gomez hil zituzten tiroka.

Argentinan norbait bizi bada baztertuta bertakoak dira. XX. men-



bait biztanlek, sindikatueta-
matoiek eta futbol taldeen inguruan
mobilizatzen diren hooliganek,
elkar hartuta eraso zieten parkean
bizi zirenei. Juan Castañeta Quispe
38 urteko boliviarrak hil zutela gauza
segurua da, eta lekukoek diote 19
urteko beste gazte bat hilzorian era-
man zuela anbulantzia batek, gaur
desagertuta dagoelarik.

“Horra –idatzi du Argumedok–
ekintza itxuragabe hauen beste iro-
nia krudela: abenduaren 10a zen,
Giza Eskubideen Nazioarteko
Eguna”. Eta laburbildu ditu bi hila-
bete laburretan Argentinan jazota-
ko heriotzeen zergaitiak: laneko
baldintza duinen eskea, morrontza-
ko lanak, umeen lana, indigenei
lurrak ebastea, bizilekurik eza, etor-
kinekiko mespretxua...

Bertako herritar indigenen zan-
paketa Argentina bezalako herrialde
kolonizatu berriena da. Aldiz,
Europar Afrika, Asia eta Amerika-
ko etorkinen kontrako xenofobia
ezagutzen dugun moduan, Argenti-
nako hiri europar kutsukoetan,
antza, antzeko fenomeno gerta-
tzen da Boliviatik edo Paraguitik
iristen zaizkien *indio*ekiko.

Mariano Ferreyraren hilketa eka-
rri zuen liskarrean ere europarrok
ikus genezake gure burua. *Ajuste*
neoliberalak hemen ere lanpostuen
prekarizazioa ekarri du, txirotasuna
ugaritzea, langileen zatiketa bizi bal-
dintza oso ezberdinetan.

Argentinan bezala hemen ere
gazteriak ez dauka beste alternati-
barik edo langabezia edo kontratu
lotsagarriak onartzea baino. Villa
Soldati bihar gerta liteke Barakal-
don. ■

dean barrena jasan zuten suntsike-
taz gain, azken hamarkadotan azken
zelai eta basoak galtzen ari dira.
Tobatarren kasuan, gehienak gaur
egun hirietako txabolategietan bizi
dira eta Formosa bezalako probin-
tzietan azken indigenak iraun ezi-
nean bizi dira, lurrak eraikuntzara-
ko erabili baina batez ere soja
transgenikoa etxalde erraldoietan
landu nahi duten espekulatzailen
aurrian.

Baina Argentinako udazken
honetako istilu larriena, gureganai-
no iritsi dena goian aipatutako ger-
takizun ahaztuak oroitarazi dituen,
abenduaren 7an jazo zen Buenos
Airesen, Villa Soldati auzoan. Egun
horretan poliziek Bernardo Salguei-
ro 22 urteko paraguaitarra eta Rose-

mary Churapuña 28ko boliviarrak hil
zituzten balaz, 30 gehiago odoletan
larri utziz.


Hildako atzerritar horiek beste
ehunka askorekin Indoamericano
–ez da txantxa– parkean zeuden
akanpaturik, bere irabazi urriekin
bizileku hoberik alokatu ezinik.
Zikinkeria, zaratak, segurtasunik
eza eta abar argudiatuz, Villa Solda-
tiko biztanleek eskatzen zuten haiek
kanporatzea.

Baina ez ziren hor bukatuko
heriotzak. Cristina Kirchner alderdi
peronistakoa izanik eta Buenos
Airesko agintari nagusi Mauricio
Macri oposizioa, nork bere polizia
parketik atera zuen eta parkea kon-
trolrik gabe utzi. Egoerak gogortzen
segitu zuen eta Villa Soldatiko zen-



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Iñaki Murua

Gabon Eskea

G abon kantua edo Oles egitea ere deitzen zaio zenbait lekutan (izen gehiago ere izango ditu, noski) baina guk, Gabon kantu entsegua egiten dugun arren, Gabon Eskea esanda ulertzen dugu abenduaren 24an, goizeko zortziak inguruan herriko kaskoan irten eta gaueko bederatziak ingurumarian berriro bertan bukatzen dugun jardunari.

Zertan hainbeste ordu: kantuan, eskean, parrandan, bisitan? Dena zaku berean! Horrelaxe esanda adierazten da ongien, seguru asko, herri txiki gehienetako Gabon Eskea. Orain urte batzuk, oinez egundoko nekatua hartzen genuen eta baita egundoko zopatua ere, eguraldi lardatsa moduzkoa baldin bazen. Igoal goizean goizetik atertu gabe euria edo elurra mara-mara; urte bakan batzuetan bakarrik giro eguzkitsua eta goxoa. Hori bai, gu umeak ginen orduan eta giro kaxkarreko eguna zenetan –hain ibiliko ginen errukarri, lokatzaz inbixaturik eta blai eginda– zakuak pisu gehiago izaten zuen ilunabarrean eta, batik bat horri, asko begiratzen genion umetan.

Azken hogeita hamarren bat urte hauetan edo, kamioia eta furgonetaren bat ere ibiltzen ditugu eskeko lagun. Beharko! Bestela ez genuke herriaren laurdenik ere pasako. Gainera, kamioiaren atze partean, bestelako egunetan abereak ibiltzen dituzten espazioan, egun horretan ere, hala-moduzkoak baino, abereak ibiltzen gara. Hango bultza-da, salto, txapel ezkutaketa, aire girotu/lurrindu, kantu eta zoro festa! Eta aldi berean, han gertatzen dena ezagutu eta joan ezinean egokitu denarentzat, inbidia galanta sortzen duen giroa.

Laborategi horretan egosten dira koplak saiorik alaiena edo kantu aldirik aztoratuenak. Baita, hurrengo baserrian halako eta halako daudela kontuak aterata, momentuan bertarako propio egindako kanta edo bertsoak ikasi eta entseguak egin ere eta talde osoak, labetik atera berri, ilusio galantez eskaini aurrez aurre ate ertzean egon ohi diren baserritarrei. Gertatu ohi zaigu,



DANI BLANCO

furgonetan eta kamioiaren kabinan zihoazenei abisatzea ahaztu eta haiek zur eta lur geratzea ere, kanta berrituaren aurrean.

Zerbait bada sormen edo okurrentzia maila suspertzen duena Gabon Eskean. Baserri batean salda beroa, hurrengoan pastak eta ardoa, hirugarrenean txistorra eta zahatoa, laugarrenean mandarinak, bosgarrenean olibak, gazta, kafea eta pastak... eta handik aurrerakoa, gogoratu ezazu ba! Baserri eta gainerako etxe ia denetan atzaparrak bete ematen digute eta guk eskertu. Bai horixe! Esateko, atari bakoitza soinu eta dantza koplak eta kanta izaten da eskeko taldeei esker.

Polita izaten da gurean, herriak mendixka bat erdian duenez –Gabiri toki guztietatik agiri, dio esakerak–, alde bateko otordu ohi-turak garai bateko fraide komenturak ezarri zituen eta beste aldekoak RENFEko trenak. Fraideak mahaian 12etan puntuan eta trena auskalo noiz pasako zen! Kontua da, usadioari jarraituz, ttonttorraren alde batean 12etan edo bazkaltzen dela eta bestaldean bazkaltzerako 14ak gertuago. Eskean gabiltzanean ederki nabaritzen dugu aldaketa: azkeneko baserrian eguerdiko ordu batean kantatu eta kafea bedeinkatuta puru eta guzti; hurrengoan, berriz, mendixkaren bestaldekoan, urdaiazpikoa eta txorixo frijitua... dena barrura eta berriketa gutxi!


Gabon Eskea dugu aitzakia herritarrok elkar ezagutzeko eta harremanak girotzeko. Amonak galdetuko du: neska hura nongoa

den eta mutil hark halako baserritakoa behar din eta... emoziozko malkoren bat tarteko, gogoratzeko uneak geratzen zaizkigu txapelpeko ganbaran. Animo, alaitasun eta usadioz gain, orde, jardunak badiu helburu gehiago ere eta fedea hozten doan heinean, elizak bere garaian errito paganoekin egin bezala, guk ere nola mezu hala forma, geure erara bizi dugu eguna. Eta ahaztu gabe: biltzen diren puxkak eta diruak, lagunarteko afaria egiteko eta premian dauden hurbileko nahiz haraxeagokoei laguntzeko balio izaten du. ■

Gabon Eskea dugu aitzakia herritarrok
elkar ezagutzeko eta harremanak
girotzeko. Amonak galdetuko du:
neska hura nongoa den eta mutil hark
halako baserritakoa behar din eta...
Emoziozko malkoren bat tarteko,
gogoratzeko uneak geratzen zaizkigu
txapelpeko ganbaran

ASTE HONETAKO

zozketak



Laia Erreategia

Afaria 2 lagunentzat

Arkolla auzoa, 33
Hondarribia GIPUZKOA

www.laiaerretegia.com

1



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Gatibu

Zuzenean bizitzeko gogoia

3 harpidedunentzat
DVD+CD bana

www.baga-biga.com

4



Egutegia 2011 euskarriarekin

2 ale opari

argia

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2257. Argia)

ARBELAITZ

- Xabier Otegi Irastorza (Gasteiz)

ONDARRE

- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)

EGUTEGI + EUSKARRI

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

OTAÑO

- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Xabier Larrañaga Gisasola (Markina-Xemein)
- M^e Pilar Cuende Arriola (Azkoitia)
- Alkizako Udal Liburutegia (Alkiza)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)

ZIZTADAK

- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete


PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Hego hemisferioan izandako lan bidaietan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da.

Hondartzan bildutako egur puska, harri eta itsas-hondakinak bezalako zerbait dira... "Eta etxera daramatzazu, batzuk bakarrik. Ez dute areetan zegoena errepresentatzen. Ez dute hondartzan gertatutakoa biltzen. Halaxe dira testu pusketok, lagunentzat tarteka bildutako zatiak".

argia

ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

15€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
14€